

GUKA
ZERBITZUAK

Ekonomia

Urola Kostako enpresak ezagutzen

Argitaratzailea:

Urolako Komunikazio Taldea

Zuzendaria:

Onintza Lete Arrieta

Kudeatzailea:

Leire Larrañaga

Publizitatea:

UKT komertzial taldea

Testuak:

UKT kazetari taldea

Diseinua:

Maria Lopez

Helbidea:

Soreasu 1

AZPEITIA

943-81 38 41

943-89 00 17

urolakosta@ukt.eus

3

Zuzendariaren agurra

4-5

Eskualdeko ekonomia mapa

6-7

Industria 4.0

8-11

Iraurgi Berritzen

12-13

Urkome

14-15

Azpeitiko Udala

16-17

Konfekoop

18-21

Aitor Alkorta

22-23

Sarralle

24-25

Urola Kostako Udal Elkarteak

26-27

Mari Jose Aranguren

28-29

Josu Waliño

30-31

Elkarmedia

32-33

Guka Zerbitzuak

34-35

Astigarraga Kit-Line

36-37

Lantegitik atzerrira

38-39

P3

GUKA
ZERBITZUAK



Ostalaritzarako Hornigaiak
www.sammic.com

GERTUKO BETAURREKOEKIN



GORKA ZABALETA
UKT-KO ZUZENDARI NAGUSIA

Behin edo behin pentsatu omen du lagunak, ez duela bere burua kapaz ikusten oihanean bakarrik bizirik irauteko. Nola lortu jatekoa, nola eraiki aterpe bat, nola piztu sua? Inork ez diola erakutsi, gauzaez sentitzen dela. Eta ulertzen duela jendeak komuneko papera, garagardo latak eta kanpingasak dozenaka erostea, gizartearen kolapsatze handi baten beldurrak mamu atabikoenak pizten dituelako. Mundua pikutara badao, azpiko arropak behintzat garbi.

Bakarkako ihesbiderik ez dago, ordea. Ez dago nahikoa uharte bakarti itsasoan, ez dago nahikoa artzain-borda mendietan, zortzimila milioi lagunentzat. Animalia sozialak gara eta irtenbide kolektiboak dira gure patua eta, era berean, gure esperantza bakarra. Deitu herrigintza, auzolana, kooperatibismoa, aliantza, saretzea edo ekonomia kolaboratiboa, elkarrekin jar-

dunda izango dugu aukeraren bat, akaso.


Mundu mailakoak dira aurrez aurre dauzkagun erronka handienak; tokikoak, guk geuk har ditzakegun neurri eraginkorrenak. Uztarri berean behar ditugu ekologia eta ekonomia, eta denbora gehiago galdu gabe has gaitetzeke lanean, elkarrekin eta gertukoenekin. Enpresa sareak, lehen sektoreko ekoizleak, hezkuntza sistema, erakunde publikoak, gizarte antolatua eta herriarrak, denok gara ezinbesteko eraldaketak arrakasta izango badu.

Globalizazioaren ajeei aurre egiteko premiaz ohartuta, hainbat ekimen sortu dira han-hemenka, soluzioa ekonomia gertuko komunitateen eskalara egokitzea izan daitekeelakoan: zero kilometroko elikadura, gure baserritarrak babesteko; tokiko merkataritzaren aldeko kanpainak, herri aberastasunari eusteko; zuntz optikoko sare publikoa, garapen teknologikorako erreminta propioak izateko; energia berriagarriak sortzeko egitas-


moak, enpresa handien hain menpeko ez izateko; etengabe-ko berrikuntza programak, gure industria garai berrietara egokitzeko; edota hezkuntza sistema eta enpresen arteko harreman estuagoa, belaunaldi berriek lan mundura sarbide egokiagoa izan dezaten.

Tokiko garapenaren alde egin nahi badugu, herri osasuntsu eta indartsuak nahi baditugu, burujabetzan sakondu nahi badugu, zero kilometroko tomateak bezain garrantzitsuak dira tokiko hedabideak: interes publikoa duen informazioa zabaltzeko, konpondu beharreko arazoen berri emateko, gure egunerokoan erabakiak hartzen laguntzeko, elkarren berri izateko, elkarrizketa sustatzeko, herria kohesionatzeko.


Gertuko ekosistemaren parte sentitzen garelako sortu dugu esku artean daukazun Ekonomia gehigarria. Gure errealitate sozioekonomikoari gertuko betaurrekoekin begiratzuz, hobeto ezagutu eta aurrerabideak topatzeko gure alea jartzeko borondatearekin. ■




*Datuak: langile kopurua afiliazioaren arabera




UROLA KOSTA



GIPUZKOA



ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA



ERALDAKETAN MURGILTZEKO GARAIA

Digitalizazioaren bidean urrats berriak ematea da enpresa ororen erronka nagusienetakoa. Horri buruzko hainbat ondorio plazaratu ditu Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuak 'Industria 4.0 trantsiziorako ekintza planak Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainetan' izeneko txostenean.

Urola Kostako datu mapak garbi erakusten duenez –aurreko bi orrialdeetan ikus daiteke–, zerbitzuen eta industriaren sektoreek dute pisu gehien eskualdean; zehazki, 11 herrietatik zazpitan industria sektorean dago langile gehien. Sektore garrantzitsuagoak edo apalagoak izan, antzeko erronkak dituzte guztiek, eta horien artean nagusienetakoa da digitalizazioari lotutakoa. Beste era batera esanda, Industria 4.0 deiturikoa pausoak ematea dute helburu enpresek.

Enpresa txiki, ertain zein handi, guztiak ari dira alor horretan lanean, eta Gipuzkoan horien bidelagun dira Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutua, Foru Aldundia eta tokiko gara-

pen agentziak –Iraurgi Berritzen eta Urola Kostako Udal Elkarteak eskualdean–. Hain justu, aurten argitaratu du Orkestrak *Industria 4.0 trantsiziorako ekintza planak Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainetan* izeneko txostena.

Txosteneko laginean herrialdeko 85 enpresak parte hartu dute, baita tokiko garapen agentzia guztiek ere. Hau da, eskualde guztietako enpresak daude laginean. Enpresa gehienak metal eta metalezko produktuen sektorekoak dira (%45,5), 20 eta 49 langile artean dituzte (%59,4) eta bi eta hamar milioi euro bitarteko salmenta kopurua dute (%62).

2019an eta 2020an egindako lanketatik hainbat ondorio ate-

ra dituzte. Batetik, enpresetan txertatzeko gehien aukeratutako 4.0 teknologiak, honako hauek izan dira, hurrenez hurren: automatizaziorako teknologiak, integrazio sistema horizontal eta bertikalerako teknologiak, big data eta datu analisirako teknologiak eta gauzen internet industriala –taulan ikus daitekeenez, Urola Kostan desberdina da hurrenkera–. Teknologia horiek bi helburugatik aukeratu dituzte nagusiki: fabrikazio operazioen datu analisia edo datuen babesba hobetzea; eta fabrikazio prozesuen kostu egitura hobetzea. Eta, batez ere, enpresaren produkzio prozesuan txertatu dituzte teknologia horiek.



Zumaiako Internet eta Telefonía operatzailea

Erribera kalea, 6 · Zumaiá


📞 669 74 80 83 · 943-14 30 97 telefonía@ekinsl.com

Berrikuntza teknologikoak egiteko, ordea, beharrezkoa da beste maila bateko pausoak ematea ere. Baldintza ez teknologikoak deitzen zaie horiei, eta honakoak aukeratu dituzte enpresek: Industria 4.0 plana definitzea eta idaztea; antolaketa eredu egokitzeari; merkatuak Industria 4.0ko aplikazioak onartzen dituen aztertzea; eta pertsona kualifikatuak izatea. Helburu argiekin egin dute hori enpresek: nagusienak izan dira enpresaren eraldaketa estrategia bultzatzea, barne gaitasunak garatzea eta antolaketa moldatzea.

Zailtasunen berri ere ematen du txostenak: batez ere baliabide ekonomiko falta aipatu dute enpresek, baita dirulaguntza programen konplexutasuna kudeatzeko gaitasun eza ere. Horiez gain, prozesuan ziren bitartean denborarik ez edukitzea edota lehentasunak aldatu izana aipatu dituzte. COVID-19aren krisiaren ondorioak ere zerrendatu dituzte zailtasunen artean.

Bestalde, txostenaren egileek azpimarratu dute inbertsioen finantzazioa laguntzeaz gain, programa publikoek berrikuntza sistemako eragileen gaitasunak garatu eta beren arteko lankidetzak bultzatu behar dutela. "Ekintza plan hauek ahal-

ENPRESEK AUKERATUTAKO 4.0 TEKNOLOGIAK (2019-2020)



Iturria: Orkestraren txostena

bidetu dute EAE mailako berrikuntza sistema osatzen duten eragileen arteko saretzea, eta horretan, giltzarri da agentziek 'familia mediku' papera betetzea".

Azkenik, nabarmendu dute eraldaketa prozesua ez dela 4.0 teknologien txertaketara mugatzen, eta giltzarria dela enpresaren eraldaketa orokorragoa ahalbidetzen duten arlo ez teknologikoak garatzea.

Eskualde anitza da Urola Kosta, baita ehun ekonomiari dagokionez ere, baina Orkestrak ondutako txostenak eta haren ondorioek erakusten dute epe laburrean eta ertainean enpresek segitu beharreko bidea zein den. ■



- Garbiketak orokorrak
- Etxebizitza eta bulegoak
- Obra amaierak
- Garaje eta ganbarak
- Mantenua
- Ostalaritza
- Apartamentu turistikoak

LURRETIK Garbiketak. Santio erreka 41, Aia-Orio
636 18 82 92 (Vicky) / info@lurretik.es



Urola Erdiko garapen eta berrikuntza agentzia da Iraurgi Berritzen. Tokiko udalek, lankidetzan, eskualdearen sustapen sozioekonomikorako dituzten politika eta estrategia publikoen garapenaz arduratzen da erakundea.

- **Elkarrekin**

Eragileekin lankidetzat sustatzeko sortu dituen harreman sare eta parte-hartze espazio ezberdinek marrazten dute agentziaren bidea.

- **Eskualdea**

Urola Erdiko sei udalerritara bideratzen du bere jarduna garapen agentziak: Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Errezil, Beizama eta Aizarnazabal.

- **Eraldatzen**

Agentziaren funtsa eskualdeko eragileek etorkizunera egokitzeko egin beharreko eraldaketa prozesuetan bidelagun izatea da.

www.iraugiberritzen.eus



BEGOÑA BEOBIDE AZPEITIA

IRAURGI BERRITZENENKO ZUZENDARIA

Digitalizazioaren apustu sendoa bultzatzen ari da Iraurgi Berritzen azken urteetan, eskualdeko eragile desberdinetan eta bereziki enpresetan, digitalizazioaren inguruan proiektu eta ekimen zehatzak abian jarritz.

Enpresa guztiek, haien tamaina edozein dela ere, aldatu behar izan dituzte beren lanmoduak, eta bultzada handia egon da IKTak egunerokotasunean txertatzeko beharrari dagokionez. COVID-19ak enpresen eraldaketa digitala aurreratu du, batez ere ETEena, eta horrela identifikatu zen zehazki 2021eko maiatzean IBk egindako *Urola Erdiko Industria ehunaren egoera sozioekonomikoaren* azterketan. Galdeketa erantzun zutenen artean, gure eskualdeko ETEEn %63,6k digitalizazioaren inguruan aurrerapausoak emateko neurriak hartu behar zituztela azaldu zuten.

Emaizta horiek kontuan izanik eta azken bi urteetan eraldaketa horrekin lotutako teknologiak ezagutarazteko egindako ekimenen ondoren, **enpresen eraldaketa digitalaren prozesuetan** aurrerapauso berezia egiteko apustua egiten jarraitzen du IBk, enpresetan **digitalizazioa**

DIGITALIZAZIOA, LEHIAKORTASUN PALANKA GISA

bultzatzeko proiektu zehatzekin barne prozesuak digitalizatuz eta negozio eredu digitalak bultzatuz:

- **Datuen gobernantzaren inguruan, honako proiektu aukerak:** helburu estrategiko bati lotutakoak, plangintza hobetetzeko beharrezkoak, proiektu zehatz bati lotutakoak...

- Erabakiak hartzeko denborak hobetzea, **prozesuaren eta makinaren monitorizazioan** oinarrituta.

- Kanal digitala ustiatzeko balio proposamena eta segmentazioa aztertzea.

- Ikuspegi digitaletik bezeroa-ri bideratutako balioa.

- Ekoizpen prozesuak hobetzeko digitalizazio prozesuen azterketa.

- **Digitalizazioak** enpresa bakoitzari **ekar diezazkiokeen negozioan eta barne efizientzian hobekuntza** aukera nagusiak identifikatzea eta lehenes-tea.

- **Enpresa bakoitzeko eraldaketa digitalerako plana zehaztea:** zer egin, nola egin, zer baliabide erabili eta zein epetan.

Eta eremu digitalaren aldeko eraldaketaren barruan, datuaren balioaren aldeko apustua egitea ere ezinbestekoa ikusten da, negozio berriak sortzeko iturri



berria den aldetik, zerbituzazioa-ri bide emanez, produktua zerbitzura igarotzea ahalbidetuz, negozio eredu berriak sortuz, batez ere gure eskualdeko industria sektorean, *produktua-saltzetik, zerbitzua saltzera*. Gure ikuspegiaren arabera, *zerbitzuaren* bidezko monetizazioa bultzatu behar da, eta digitalizazioa ere palanka gisa ikusi behar da datuari lotutako negozio eredu berriak sortzeko. Ezinezkoa da halakorik lortzea enpresek digitalaren alde egiten ez badute.

Hala ere, kontuan izan behar da hainbat faktorek eragiten dutela digitalizazioaren inguruko erronkei erantzuteko garaian:

- Aldaketa eta eraldaketa: errealitate horrekin batera bizi behar da, eta mota eta neurri

guztietako enpresek landu ditzakete.

- Ustiatzea eta esploratzea, metodoarekin, orekarekin eta fokoarekin, *esentziaren* gainean eraikiz.

- Balioa eta bezeroa, hazkunde jasangarriaren, orientatuaren eta egiazkoaren zutabeak izanik.

- Denbora da aliaturik handiena edo lehiakiderik txarra, erreakzionatzeko dugun gaitasunaren arabera.

- Eraldaketa digitalerako oztoporik handiena baliabide falta da, batez ere baliabide pertsonalena.

Eskualde lehiakor bat izateko bidean, IBk **enpresen eraldaketa digitaleko bildelagun** izaten jarraituko du. ■

UROLANPREST ENPLEGU GUNEA

Urolanprest enplegu gunea 2016an sortu zen, Iraurgi Berritzenek eskualdean garatzen duen lankidetzaren gobernantza ereduaren testuinguruan, garai hartan zegoen egoera sozioekonomikoari eta langabezia tasa altuari erantzun bat emateko asmoz. Gunea udalek eta bailarako prestakuntza eta enplegu eragileek osatzen dute, eta aipatutako helburuaz gain, beste lan leku hauek ere lantzen dira:

- **TALENTUAREN KUDEAKETA:** IBko Enplegu Zentroan eskualdeko enpresetako lan eskaintzak kudeatuz eta lan munduratze programen bitartez.

- **ZAURGARRITASUN EGOERAN EDO ARRISKUAN DAUDEN KOLEKTIBOAK LANERATZEA:** Elkarrekin proiektuaren bitartez, Foru Aldundia- ren laguntzarekin, eskualdean zaurgarritasun egoeran edo arriskuan dauden pertsonen prestakuntza eta lan aukerak eskainiz.

- **ESKUALDEAN LANGABEZIA TASA MURRIZTEA:** Eskualdean bilakaera oso positiboa izaten ari da. Azken datuen arabera, bailaran %8,10ekoa da langabezia tasa, aurreko urtean baino 1,3 puntu baxuagoa (iaz, %9,40). Gure helburua, zerbitzuak eta programak bitartez, eskualdeko langabezia maila jaitea da.

ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ARLOKO ZERBITZU ETA PROGRAMAK

ENPLEGU ZENTROA

Eskualdean lana aktiboki bilatzen ari den edonori informazioa eskaintzeko gunea.



ORIENTAZIO ZERBITZUA

Pertsona bakoitzaren beharretara egokiturako aholkularitza pertsonalizatua beren enpleagarritasuna eta heziketa aukerak hobetzeko.



LAN MUNDURATZE PROGRAMAK

1.- Hazilan programa: 20-44 urte bitarteko pertsona kualifikatuak zuzenduta dago. Onuradunak aktibatzea, zeharkako gaitasun sozio-profesionalak hobetzea eta gaitasun profesionalak hobetzea eta lanpostuko esperientzia lortzea ditu helburu.



2.- Bidelan programa: partaideen gaitasun pertsonalak eta profesionalak landuz, enpleguan eta prestakuntzan ibilbide berri bat sortu. Oinarritzko ikasketa maila duten langabetuei zuzenduta, gehienbat emakumei.

3.- KAP Kudeaketa: eskualdeko gazteen talentua bertako enpresetara erakarri. ■

ENPLEGUA

ORIENTAZIOA

PRESTAKUNTZA

Urola Erdiko enplegu eragileen eskaintza bateratua eta eguneratua aurkitzeko erreferentziazko topagunea



www.urolanprest.eus

www.urolanprest.eus



Kontaktua

Maialen Ituarte
enpleguzentroa@iraurgiberritzen.eus
688 75 95 90

Maite Etxezarreta
orientazioa@iraurgiberritzen.eus
688 75 84 94

Sandra Fernández
sfernandez@iraurgiberritzen.eus
688 87 35 89

EKINTZAILETZA, IRAGANA ETA ETORKIZUNA

Aspaldi esana da aurrera ateratzen diren espezieak ez direla gogorrenak, baizik eta aldaketara ondoen egokitzen direnak. Negozioen kasuan ere esan genezake inoiz baino gehiago dela baliagarria esaldi hori.



Alazne Larrrañoaga Ekintzailletza eta Merkataritza koordinatzailea eta Ione Eizagirre Ekintzailletza eta Merkataritza teknikaria.

ERRONKA

Etorkizunera begira, ekintzailletzarako eskualde erakargarri bati begira jarri gara eskualdeko eta eskualdez kanpoko ekintzailletza eragileak –Izarraitz Lanbide Heziketa, Urkome, Teknika, Bic Gipuzkoa eta Iraurgi Berritzen–, hausnarketarako eta proiektu desberdinak martxan ipintzeko gunea sortuz.

Informazioa, ezagutza eta talentua barreiatzen diren ekosistema baten sorrera izan dugu helburu.

EKINTZAILETZA SUSTATZEKO GUNEA

2015. urtean **KLINK** espazioa sortu zuen eskualdeko ekintzaile talde batek, Iraurgi Berritzenek eta Urkomek. Eskualdeko ekintzailletza sustatzeko gunea da hori.



KLINK espazioak ekintza desberdinak antolatzen ditu urtean zehar: formakuntzak, kafe tertuliak eta ekintzaileei ikusgarritasuna emateko elkarriketak eskualdeko hedabideetan, besteak beste.

www.klink.eus

EKINTZAILLEEN BILAKAERA



Ekintzaile *offline* - *online*.

Orain urte batzuk, kokapen fisikoa eta produktu salmenta ziren negozio ereduaren ardatza. Orain, aldiz, zerbitzuak eta edozein lekutarako irisgarritasuna dira.



Zerbitzazioa

Negozio ereduetan aldaketa. Produktu salmentara soilik bideratutako negozioek arriskua dute; zerbitzua bilakatu da egun elementu bereizgarria, kokapen fisikoaren gainetik.



Konpatibilitatea

Orain urte batzuk, negozio aukera identifikatu eta erabateko apustua egiten zen (lana utzi, inbertsioa lokalean, mailegua...). Egun, pauso horren ordez konpatibilitatea hobesten da (lana mantendu, egokitutako lokal batean hasi, ahal bada mailegurik ez...). ■

**YURRE PEÑAGARIKANO**

URKOME UROLA KOSTAKO LANDA
GARAPENKO ELKARTEKO GERENTEA

GURETZAT EZINBESTEKOAK ZARETE

Urola Kostako Landa Garapen Elkartek, Urkomek, amaitu berri du 2021. urtean 2015-2020 Landa Garapenerako Eskualdeko Programaren ebaluazioa. Eskualdeko Landa Garapen Programa landa eremua dinamizatzeko tresna komun bat da, eta lanerako oinarritzko dokumentua, landa garapenaren alde lan egiten duten erakunde eta administrazio orotan.

Ebaluazio honetan eta lehenengo sektoreari dagozkion, eboluzio datuak ikusirik, ondorio hau antzeman daiteke: lehen sektoreak eskualdean duen pisua, Balio Erantsi Gordinari (BEG) dagokionez, %2,5ekoa da. Ehuneko hori handia ez bada ere,

sektoreak Gipuzkoako Lurralde Historikoan (%0,7) eta Euskadin (%1,0) duena baino handiagoa da.

Nolanahi ere, lehen sektoreak %34,4ko hazkundea izan du eskualdean. Eskualdeko nekazaritza ustategien kopurua 1.674 zen 2019an, eta erabilitako nekazaritza azalera 11.239,9 hektareatakoa. Datu horiek, 2015ean ez bezala, %1,5 murriztu dira ustategien kasuan, eta %3,4 NAEn. Landatartasun mailaren arabera (G1-G6) bereizitako datu horrek antzeko eragina adierazten du landa eremuetan (ustategiak -%1,5; NAE -%3,8).

Landa eremuko nekazaritza magnitudeen bilakaeran oinarrituta, ikusten da establezimendu, enplegu eta NAE kopurua pixkanaka murriztu den arren, BEG hazi egin dela. Hori guztiz des-

berdina da Gipuzkoako Lurralde Historikoko eta Euskadiko establezimenduen eta afiliazioen batez bestekoarekiko.

Alde batetik, gutxitu egin dira nekazaritza azalera erabilgarria, nekazaritza ustategien kopurua, lehen sektorean afiliatutako pertsonak eta nekazari profesionalak, eta horrek argi eta garbi adierazten du nekazaritzaren egoera delikatu.

Datu hauek ikusirik, gizartea hausnarketa egitera gonbidatzen dugu. Gure baserritarrek eta ekoizleak, guk jaten ditugun elikagaiak ekoizten dituztenak, baloratu egin behar ditugu, beren lanari balioa eman eta erostekak zentzuz egin.

Bestalde, baserritarrek herritarren errespetua merezi dute, eta landa eremura gerturatzen garenan, ezin dugu ahaztu bertan

Gure sukaldetik zure etxera.

Betiko sukaldean landutako zaporeak eta euskal platerak zure etxeko mahaian.

Ameztoi
IDENTITATE SUKALDARITZA

baserritarrak bizi direla; mendi, baso eta zelaiek jabe bat dutela; eta baserritarrak direla landa eremu eta paisaia hori mantentzen dutenak.

Dena den, eta COVID-19aren garaian, argi gelditu zen baserritarrak ezinbestekoak zirela, eta hainbat ekimen egin ziren azokak mantentzeko eta elikagaiak merkaturatzeko. Baina, zoritxarrez, hori jada ahaztu egin zaigu. Eta horrek ere norbanakoak eta gizarte osoa hausnarketara eraman behar gaitu. Zer-nolako elikadura nahi dugu? Benetan prest al gaude bertako produktuen aldeko apustu garbi bat egiteko? Benetan baloratzen al ditugu bertako produktuak eta ekoizle baserritarrak eta ezinbestekotzat jotzen al ditugu?

Baina hausnarketa horien guztien atzean, lehen aipatutako datuek zer pentsatua ematen dute. Baserritar profesionalen eboluzioa beheranzkoa da, eta errelebo falta oso nabarmena.

Arazoi sakon asko dago horren atzean: lehen sektorea ez da jarduera ekonomiko bezala ikus-

	Balio Erantsi Gordina 2017			Establezimenduak 2019			G.S. afiliazioa 2019		
	Miliroi euro	%	2015-2017 eboluzioa	Estab. kopurua	%	2015-2019 eboluzioa	Afiliatu kopurua	%	2015-2019 eboluzioa
Urola Kosta landa eremua G1-G6	6,3	6,2	22,3	133	35	-3,6	107	14,6	-10,7
UK	56	2,5	34,4	548	9	8,3	608	1,81	-5,8
GIPUZKOA	166	0,7	21,1	2066	3,5	-5,1	2542	0,81	-3,2
EUSKADI	702,7	31	30,5	6480	3,7	8	8603	0,9	-2

Iturria: Eustat

ten, eta hori hezkuntza alorretik aldatzea behar-beharrezkoa da. Bestalde, ustiakuntzen errentagarritasun eskasa nabarmendu behar dugu; egungo egoera ez da batere ona. Eta, bestetik, lurren eskuragarritasuna: sektorean hasi nahi duen batentzat oso zaila da lurren jabetza eskuratzea, eta are gehiago, egin beharreko inbertsioak egitea.

Honi guztiari aurre egiteko, beharrezkoa da elikadura estrategiak garatzen joatea. Alde batetik, nekazaritzarako babesuriko lurretan aktibitatea gartu behar dugu, eta horretarako behar diren ahalegin bateratuak

Adierazlea	Neurketa unitatea	Hasierako balioa	Bukaerako balioa
Landa eremu erabilgarria	Ha	11.634	11.240
1. sektorea balio erantsia	€	41.690.310	56.043.983
Ustiategi kopurua	Ustiategi kopurua	1.699	1.674
Establ. kopurua	Ustiategi kopurua	506	548
1. sektorea afiliatuak	Pertsona kopurua	646	608
Nekazari profesionalak	Pertsona kopurua	129	110

HAZiren informazio erabiliz sortutako taula

egin erakunde guztiek elkarlanean. Eta, jarraian, bertako produktuei balioa ematen dioten zentzuzko salmenta eta distribuzio bideak jorratu. Azkenik, gizartearen sentibilizazioa aragotu eta baserritarren lana errespetatu eta horri balioa eman.

Guretzat ezinbestekoak zarete! ■



Behi-esnea

Santaklarako esnea laister zure etxean, baserritik zuzenean

Salmenta puntu berriak Zumaian!



639 879 611



info@agroturismosantaklara.com



TOKIKO EKONOMIA BULTZATZEKO ETA LANGABEZIARI AURRE EGITEKO LANEAN

2020 eta 2021 urteen artean 957.000 euroko inbertsioa egin du Azpeitiko Udalak herriko ekonomia sustatzeko; sektore guztietara bideratu dira laguntza lerroak, eta azpeitiarren kontratazioak ere lagundu dira langabeziari aurre egiteko.

Ekonomia sustatzea eta enplegua sortzea. Horiek dira Azpeitiko lehentasun eta erronka handienetarikoa azken urteotan, eta horiek bultzatzeko neurri eta baliabide ezberdinak jartzen ari da udala, 2013. urtean Sustapen Ekonomikorako laguntzak sortu zituenetik. Azken bi urteotan, bereziki indartu dira laguntza horiek; ia milioi bat euro bideratu dira COVID-19ak sortutako egoera ezohikoari eta ziurgabeari aurre egitera.

Azpeitiko Udalarentzat ekonomia sustatzeko moduz gain, herriko langabeziari aurre egiteko tresna ere badira laguntza horiek. Bide horretan, iaz, herriko enpresetan azpeitiarrak kontratatzea diruz laguntzeko lerro berri bat sortu zuen, eta 26

lanpostu sortzea lagundu zen diruz. Azpeitian, urriko langabezia tasa %7,6koa da, eskualdeko, Gipuzkoako zein EAEko datua baino baxuagoa.

Enpleguaren sorrera eta enpresen lehiakortasuna sustatuz, eraldaketa ekonomikoa eta soziala ahalbidetu nahi dira, lehiakortasun eta garapen jasangarriagoa izango duten ehun industria izateko. "Azpeitiarren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko ezinbestekoa da lana. Bide horretan, azpeitiarrak Azpeitian bizi eta lan egiteko aukerak sortzeko baliabideak jartzea eta neurriak hartzea da gure helburu nagusia", adierazi du Nagore Alkorta alkatea. Bide horretan, "inor atzean ez uzteko", sektore guztiak laguntzeko konpromisoa

du. "Sektore ahulenetan eta kolpatuenetan indar berezia jarri dugu laguntza hauek bideratzeko orduan", zehaztu du. Bide horretan, langabezia datuen atzeko errealitatea gertutik jarraitzen dutela gaineratu du: "Jakitun gara langabezia datuen atzean gazteak eta emakumeak daudela gehienbat. Beraz, bereziki bi sektore horien langabeziari aurre egiteko lanean ari gara".

Sustapen ekonomikorako laguntzak lau lerrotan bereizten dira, eta sektore desberdinak laguntzera bideratzen da horietako bakoitza. Lehen lerroan, lehen sektorerako eta zerbitzuetarako laguntzak bideratzen dira; bigarrenean, industria proiektu estrategikoak edo berritzaileak sustatzeko laguntzak ematen dira; hirugarrena, ekintzailetasuna bultzatzeko lerroa da; eta herriko enpresetan azpeitiarren kontratazioak bultzatzeko laguntza laugarrena.

Sustapen ekonomikoaren barruan, azken urteotan emandako dirulaguntzen bidez, herriko hainbat enpresatan egindako inbertsioak ezagutzeko asmoz, udal ordezkariak enpresak bisitatzen ari dira. Horrela, enpresek egiten dutena ikusi eta aurrera begirako erronkei buruz hitz egiteko parada ere izan da: "Enpresen egunerokoa ezagutu, dituzten zailtasunen eta indarguneen berri izan eta aurrera begirako erronken berri izatea ezinbestekoa da gure lanerako, eta bisita horiek horretarako aukera eskaintzen digute", zehaztu du Alkortak.

Langabeei arreta pertsonalizatua

Azpeitiko Udalak, Iraurgi Berritzenen bidez, enplegu eta prestakuntza garapenerako tokiko politika integralak garatzeko baliabideak ere eskaintzen ditu, hala nola enplegu zentroa eta orientazio zerbitzua eskaintzen ditu langabeentzat edo lanez aldatu nahi duten pertsonentzat. Zerbitzua bi alor nagusitan bereizten da: Enplegu Zentroa eta Orientazio Zerbitzua.

Enplegu Zentroaren helburu nagusia da eskualdean dauden lan eskaintzen inguruan informazio osoa eskaintzea eta bilaketa aktiboan laguntzea.

Azpeitiarrek Azpeitian bizi eta lan egiteko aukerak sortzeko baliabideak jartzea eta neurriak hartzea da gure helburu nagusia



Horrez gain, curriculum eta aurkezpen gutuna prestatzen ere laguntzen da. Orientazioari dago-kionez, langabezia dauden edo enplegua hobetzea nahi duten pertsonei zuzendutako zerbitzu guztien informazioa dago eskura. Eta lanerako prestakuntza aukerak ezagutzeko ataria ere bada. Lana bilatzeko tailerrak, langabetuentzat prestakuntza eta langileen etengabeko prestakuntzaren inguruko informazioa aurki daitezke bertan.

Datuak

2020. urtea:

Aurrekontua: 457.000 euro.

Lagundutako proiektu kopurua: 101.

30 proiektu merkataritza eta lehen sektorekoak.

29 proiektu industrial.

16 proiektu ekintzaile.

26 kontratazio.

2021. urtea:

Aurrekontua: 500.000 euro.

Aurkeztutako proiektu kopurua: 207 (esleipen prozesuan). ■

"PROPOSATZEN DUGUN EREDU SOZIOENPRESARIALAK BERE EFIZIENTZIA ERAKUTSI DU BERRIRO ERE"

Rosa Lavin

KONFEKOOP-EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOKO PRESIDENTEA

KONFEKOOP-Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa erakunde berritua da, sektore ekonomiko eta jarduera guztiak barne hartzen dituen, eta mugimendu kooperatiboaren bozgorailu gisa lan egiten du. «Proposatzen dugun eredu sozioenpresariala balioetan eta printzipioetan oinarrituta dago, eta bere efizientzia erakutsi du berriro ere», esan du Rosa Lavin KONFEKOOPeko presidentea, pandemiak eragindako krisi orokorraren aurrean enpresa kooperatiboek eman duten erantzuna azpimarratuz.

Zer da KONFEKOOP?

Euskadiko enpresa kooperatiboak sustatzeko, laguntzeko, ordezkatzeko eta babesteko



"Gazteak erakarri nahi ditugu, gure ereduak haien balioekin bat egiten duela uste baitugu"

erakundea gara. Gaur egun, 1.300 enpresa kooperatibo baino gehiago dira bazkide, eta Euskadin 60.000 enplegu baino gehiago barnebiltzen ditu; guztira, 1,4 milioi pertsona dira bazkide, modu batera edo bestera. Hortaz, Euskadiko sektore arteko enpresa elkarte garrantzitsuenetako bat gara. Euskadiko biztanleria helduaren %70 lotuta daude nola edo hala kooperatiba arloarekin.

Zer helbururekin sortu zen konfederazio hori?

2006an sortu zen KONFEKOOP, Euskadiko mugimendu kooperatiboa erakundeen aurrean ordezkatzeko eta haren interesak defendatzeko. Ordura arte, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak

(CSCE-EKGK) betetzen zuen lan hori. Apurka-apurka, hainbat federaziotan (1980ko hamarkadaren amaieran sei sektore federazio zeuden) eratutako kooperatibismoa integratzen hasi zen; lehenik eta behin Erkiden, harik eta 2020an Euskadiko kooperatibismo guztia KONFEKOOPen elkartu zen arte. Jarduera sektore guztiak integratzeak indartsuago egin gaitu, eta gure ikusgaitasuna eta eragin gaitasuna areagotzeko aukera eman digu.

Urte hauetan guztietan, nolako bilakaera izan du KONFEKOOPek?

Kooperatibismoak sistema kapitalistaren ordeztu ere du sozioenpresariala proposatzen du. Helburu nagusia da pertsonen beharrezanez erantzun bat ematea, zuzeneko eragin positiboa landuta gure lurraldean, eta, gainera, helburua argi bideratuta dago lehiakortasunetik emaitza lortzera. Beste ere du batzuekin alderatuta, kooperatibismoan langileek erabakitzen dituzte beren lan baldintzak. Euskadiren kasuan, gure eredu erreferentea da nazioartean. Oraingo krisi orokorrean, kooperatibismoak bere izaera antiziklikoa erakutsi du, eta bere erresilientziari eta malgutasunari esker, etorkizuneko eredu dela berretsi du. Horren froga da, pandemia hor izanda ere, 2020an KONFEKOOPen bazkidetutako enpresen kopuruak %2 gora egin duela, eta %5 baino gehiago, berriz, enplegu kooperatiboen kopuruak.

Gaur egun, zein dira helburuak?

Kooperatibismoa gehiago eta hobe lortu nahi dugu Euskadin. Gure oinarri sozietarioa handitu nahi dugu, eredu zabalduta, eta, horretarako, ekintzailatza kooperatiborako unitate bat dugu: Elkar-Lan S. Coop. Era berean, hurbil-hurbileko laguntza ematen diegu gure kooperatibei egunerokoan: garatzeko eta sendotzeko laguntza ematen diegu, informazioaren, prestakuntza saioen, *in company* prestakuntzaren, lantegien, proiektu partekatuen eta elkar lankidetzaren bidez, besteak beste.

Eta erronkak zein dira?

Euskadiko gainerako enpresa eta gizarte sarea bezala, gu ere murgilduta gaude trantsizio demografiko-sozialean, digitalean eta ekologikoan

zein ingurumenekoan. Aldaketak pertsona ardatz hartuta gauzatu behar dira, balio eta printzipioetan oinarrituta, erabakiak elkarrekin hartuta, eta prozesu parte-hartzaileak, autolaguntza, elkartasuna eta kooperazioa baliatuta. Halaber, gazteak erakarri nahi ditugu, gure ereduak haien balioekin bat egiten duela uste baitugu. Beste alde batetik, aurrerapausoak eman nahi ditugu, administrazioen aurrean eta gizartean ordezkartza nahiz eragin zabalagoa izateko.

Euskal kooperatibak erreferente dira mundu mailan. Zein da arrakasta horren sekretua?

Sekretua eredu sozioenpresarialaren idiosinkrasia bera da, efizientzia ekonomikoa eta efizientzia soziala uztartzeko gai delako. Kooperatibak erabateko enpresa zorroztasunarekin gobernatzen eta zuzentzen dira, errentagarritasuna eta lehiakortasuna aintzat hartuta, baina, aldi berean, aipatutako balioak ere kontuan hartuta. Pasatutako pandemiaren ondoren, ikusten ari gara enpresa tradizionalak keinuak egiten ari direla elementu horiek apurka-apurka beren enpresetan sartzeko, badaukatelako dimentsio sozial horrek eman ditzakeen etekinen berri. Euskadiko kooperatibetan 100 urte baino gehiago daramatzagu gure enpresak elementu horien bidez kudeatzen.

Zeuri, pertsonalki, zer eman dizu kooperatibismoak?

Kooperatibismoa nire bizitzako funtsezko osagaietako bat da. Nire kooperatiban egiten dudana lanetik eta KONFEKOOPen dagokidan zereginetik kanpo, printzipioz eta balioz eratutako bizi oinarri bat baduzu, ezin duzu hori zure bizitzako beste eremuetatik bereizi. Adibidez: kooperatiban erosten dut, produktuak kooperatiboak izatea bilatzen dut, nire seme-alabek kooperatiba batean ikasten dute eta nire ekonomia erakunde kooperatibo baten esku uzten dut. ■

“Aldaketak pertsona ardatz hartuta gauzatu behar dira, balioetan eta printzipioetan oinarrituta, erabakiak elkarrekin hartuta eta kooperazioa baliatuta”

“ARGI DAGO GURE INDUSTRIAN SARE GARRANTZITSUA DAUKAGULA”

Aitor Alkorta
AFMECEKO PRESIDENTEA

laz heldu zion Goimek enpresako gerente Aitor Alkorta zumaiairak AFMEC Mekanizazio eta Eraldaketa Metalmekanikoen Espainiako Elkarteko presidente karguari. Bere esanetan, "jauzi naturala" izan da, elkartea sortu zenetik bertan egon baita, azken urteak presidenteorde gisa, gainera. Etorkizun laburrera begira, hainbat lan ildo eta erronka dituzte esku artean sektorea indartzeko.

AFMECeko presidente berria zara, duela hila-bete batzuk heldu baitzenion karguari. Nola-koak ari dira izaten zure lehen urratsak postu berrian? 2020ko azaroan izan genuen batzar orokorrean AFMECeko presidente izendatu ninduten, baina elkartearekiko nire konpromisoa aspalditik dator. Izatez, elkarteko zuzendaritza batzordean nago sortu zenetik, eta azken bi urteetan presidenteordea izan naiz. Beraz, elkartea oso ondo ezagutzen dut, eta orain arte eman diren urrats guztietan parte hartu dut. Nire helburu nagusia da aurretik egon diren bi presidenteen –Antxon Lopez Usozen eta Alberto Perezen– lan ezin hobeari jarraipena ematea eta AFMEC elkarteko lantaldeari konfiantza osoa transmititzea, egiten ari diren lana bikaina baita.

Zuzendaritza batzordea berritzeko hauteskundeetan aukeratu zintuzten presidente. Goimek enpresako gerentea izateak konfiantza eman zien elkarteko bazkideei?

Goimek kooperatiba bat da, eta era honetako elkarlanak eta elkarkidetzak egitera ohituta gaudenez, inplikazioa erabatekoa izan da proiektu honetan, zuzendaritza batzordean dauden beste enpresa askorena bezala. Elkartearentzako garrantzitsua da, noski, barruan enpresa konprometitua egotea, eta, zentzu horretan, argi dago Goimek moduko enpresa baten parte hartzeak

konfiantza ematen duela. Elkarre berrien sorreran, behar-beharrezkoa da konfiantza sortzea eta lantzea, eta horretarako, hasieran norbaitzuk eman behar dituzte lehen pausoak. Beraz, ni presidentek aukeratzeko arrazoi nagusia izan da batez ere aurreko urteetan elkartean izandako inplikazioa. Edonola ere, nire ustez ez da garrantzitsua nor den presidentea, baizik eta elkarlanean egiten ari garen bidea eta dauden beharren inguruan pausoak ematea nahiz adostasunetik lan egitea.

Zer ardurarekin ari zarete orain buru-belarri?

Aurten, lau lan ildo nagusi lantzen ari gara: internazionalizazioa, teknologia, marketina eta talentua. Internazionalizazioan, enpresak laguntzen ditugu atzerriara pausoa ematerakoan erraztasunak izan ditzaten, azoketan parte hartzeak antolatuz eta bezeroak bisitatzeko bidaiak eginez.

Teknologiari dagokionez, enpresei teknologia proiektuak aurrera eramaten lagundu ohi diegu, beste enpresa batzuekin elkarlanean edota bana-banaka. Orain, buru-belarri gabiltza enpresek makina berrietan inberti dezaten dirulaguntzez informatzen eta proiektuetan laguntzen. Alor honetan ere, makinaren segurtasuna bermatzeko zerbitzua eskaintzen zaie enpresei.

Marketin lan ildoan, berriz, sektorearen errealtatea erakusten saiatzen gara. Mekanizazioaren eta eraldaketa metal-mekanikoaren sektorea funtsezkoa da ehun produktiboaren lehiakortasuna bermatzeko. Zerbitzu onena emateko prestakortasuna dauden enpresa modernoek osatzen dute gure sektorea. Langileak oso ondo prestatuta daude industriako sektore guztiei zerbitzua emateko, gure bezeroei fabrikazio egokiagoak ahalbidetuz eta lehiakortasun maila hobetuz. Errealtate hau gizarteratzen saiatzen da elkartea, eta,



horretarako, sektorearen eta enpresen berriak zabaltzen ditugu, katalogoa prestatzen dugu, webgune eguneratu bat daukagu, prentsa oharrak zabaltzen ditugu, merkatuko egoerari dagozkion datuak eta estatistikak egiten ditugu, eta sare sozialetan ere aktiboak gara.

Eta, jakina, talentuan oinarritutako lan ildoak ere badugu. Zentzu horretan, talentua sektorerara erakartzeko eta gazteek gure sektorea beraien etorkizun profesionalerako leku egokitzat ikus dezaten lan egiten dugu. Sektorea osatzen duten eta enpresetan lan egiten duten pertsonak trebatze-

"Urola Kostak indar handia du mekanizazio sektorean, eskualde garrantzitsua eta tradizio handikoa da"

"Lankidetzaz funtsezkoa da tamaina jakin bateko proiektuei aurre egiteko, eta lehiakor izaten jarraitzeko"

ko ere lan egiten dugu, etengabeko aurrerapen teknologikoetan eta beste hainbat alorretan treba daitezten. Lan honetan IMH dugu, AFM Clusterreko hezkuntza kanpua, fabrikazio aurreratu eta digitalean espezializatua, gure enpresek eskatzen duten prestakuntzan erreferente.

Elkartea duela bost urte sortu zen mekanizazio sektorearen erronkei aurre egiteko asmoz. Ezinbestekoa zen elkarte bezala biltzea?

AFMECek bost urte bete ditu aurten, baina aurretik denbora generaman sektoreko enpresa batzuk elkartzen eta proiektuaren zutabeak finkatzen. Urte oso intentsioak izan dira, eta sektorearentzako garrantzitsua den proiektu bat sendotu dugu. Oso balorazio positiboa egiten dugu: sektoreak beharrezkoa zuen horrelako elkargune bat sortzea, enpresei balio erantsia eskaintzen baitie. Sektorearen erronkei buruz ikuspuntuak partekatzeko bilgune bat izateaz gain, enpresen zerbitzura lantalde profesional bat izatea ahalbidetzen digu, guretzako interesgarriak diren zerbitzuak eskaintzeko eta aurrez aipaturiko lan ildoak jorratzeko.



Behin elkarte gisa funtzionatzen hasita, zer-nolako garapena izan duzue?

Elkartea sortu zenean, 2016an, gure hasierako lan nagusia komunikazioa izan zen. Euskal Herriko hamahiru enpresa batu ginen, eta elkarte eza-gutarazi behar izan genuen. Horretarako, hementik harago begiratu behar genuen; ez zen nahikoa inguruko enpresekin hitz egitea. Kanpora begira ere jarri behar izan genuen, eta nabarmentzen hasi, azoketan parte hartuz, sareetan mezuak zabalduz eta gutxinaka interesa piztuz sektoreko enpresengan. Gaur egun, 169 enpresa gara, horien erdiak Euskal Herrikoak, eta hazkunde prozesuan jarraitzen dugu.

Lan hori egiten ari ginen bitartean, gure enpresentzako interesgarriak ziren zerbitzuak sortzen hasi ginen. Zentzu horretan, AFMEC elkarte AFM Cluster erakundearen barruan egoteak abantaila asko ekarri ditu, zerbitzu asko jadanik martxan zeudelako. Gure sektorera egokitzea errazagoa izan da. Eta, orain, zerbitzuak sendotzen ari gara, eta pixkanaka berriak sortzen, enpresek adierazten dituzten beharrei erantzunez. Hori horrela, elkarte oso aktiboa gara.

Gaur egun, 169 enpresa barnebiltzeaz gain, AFM Clusterren integratutako 500 enpresa baino gehiagorekin egiten duzue lan. Ez dago dudarik sektore garrantzitsua osatzen duzuela. Bai, horrela da. AFM Clusterren barnean elkarte desberdinak ditugu. Mekanizatzaile eta metal eraldaketan lan egiten duten enpresentzako sortu genuen AFMEC elkarteaz gain, beste lau

elkarte gehiago ditugu. Alde batetik, makina erreminta sektorea biltzen duen AFM, aurtun 75 urte betetzen dituen. Bestetik, teknologia gehigarrian ari diren enpresak batzen dituen ADIMAT. Esku erremintak eta burdindegiko produktuak ekoizten dituzten enpresak ditugu Eskuin elkartearen. Eta, azkenik, UPTEK elkarte berria dugu, fabrikazio aurreratu eta digitaleko start-up enpresak batzen dituen. Guztion artean, fabrikazioaren inguruan komunitate bat sortu dugu.

Balio kate bereko fase desberdinetan lan egiten dugun enpresak gaude barnean, batzuk lehiakideak, beste batzuk elkarren osagarriak, eta guztion artean sinergiak topatzeko aukera eskaintzen digu AFM Clusterrek.

Egoitza Gipuzkoako Parke Teknologikoan kokatuta egoteak zerikusirik ba al du mekanizazioaren eta eraldaketa metalmekanikoaren sektoreko enpresak Euskal Herrian duen presentzia nabarmenarekin?

Argi dago gure industrian sare garrantzitsua daukagula. Sare hori hornitzaileek, ekoizleek, bezeroek, teknologia zentroek, hezkuntza zentroek eta administrazioek osatzen dugu, eta denon artean ahalbidetzen dugu guztiok lehiakorragoak izatea. Guk normaltzat hartzen dugu sare hori izatea, ohituta baikaude horretara. Baina hemen daukaguna ez da batere ohikoa: atzeritik datozen inbidiaz begiratzen digute, hain kilometro gutxian daukagun sare eta gaitasun bikainagatik. Espainian badira zonalde gehiago, baina ez nuke esango guk dugun mailako sarerik sortzen dutenik. Hemengo kontzentrazio eta kultura industriala oso argiak dira. Eta, beraz, dudarik gabe, elkarte Euskal Herrian eta Gipuzkoan egoteak zerikusi handia du hemen inguruan dugun sare horrekin.

Eta Urola Kosta eskualdean, zenbateko indarra du mekanizazioaren sektoreak?

Urola Kosta eskualdeak indar handia du mekanizazio sektorean; eskualde garrantzitsua eta tradizio handikoa da. Izatez, elkarteko enpresa guztien

%7 Urola Kostan daude kokatuta. Orokorrean, Gipuzkoa oso lurralde industrial da, eta eskualde guztiek dute pisu nabarmena mekanizazioari dagokionez, baina Urola Kostak duen kontzentrazio maila aipatzekoa da. Beraz, normala da bertan interes handia izatea.

Elkarteko presidente hautatu ondoren eskaini zenuen lehen hitzaldian lankidetzaren garrantzia nabarmendu zenuen. Zergatik?

Enpresen arteko lankidetzaren sustatzearen erronka garrantzitsua delako. Enpresa txikiz osatutako sektorea gara; elkartearen osatzen duten 169 enpresen batez besteko tamaina 23 langilekoa da. Beraz, "eraiki dezagun txikitik handi". Sektore honetan lan egiten dugunok badakigu exigentzia dela, eta sarritan enpresa txiki batean egin ezin diren hamaika proiektu geratzen direla bidean. Urola Kostan mekanizazio sektorean lan egiten duten enpresa txiki asko daude, eta beraz, aukera dute elkartearen laguntza eta babesa jasotzeko. Hori dela eta, lankidetzaren funtsezkoa da tamaina jakin bateko proiektuei aurre egiteko, eta, horrela, etengabeko bilakaeran dagoen ingurune batean lehiakor izaten jarraitu ahal izateko. AFMEC elkartearen bera sektoreko enpresen lankidetzaren borondatearen adibide garbia da. Lankidetzaren proiektu sendoak eta etorkizunekoak bilakatzen lagundu behar digute, eta, gisa horretan, gure herrietan eta eskualdeetan lanpostuak mantendu eta berriak sortu.

Era berean, hainbat erronka jarri zenituen mahai gainean, baina batez ere digitalizazioan egin zenuen azpimarra berezia.

Gainerako sektore industrialetan bezala, inguruan gertatzen ari diren etengabeko aldaketek gurean ere erronka garrantzitsuak eragiten dituzte. Eta nabarmendu beharreko erronketako bat digitalizazioarena da, baina argi eduki behar dugu digitalizazioa ez dela helburu bat, erreminta edo bide bat baizik. Teknologia digital berriek negozioak aurrera eramateko sortzen dituzte, baita lan egiteko erak hobetzeko bideak ere, eta gure sektoreak hori aprobetxatu behar du. Enpresek aldaketa teknologiko horietara egokitu behar dute etengabe, jendea trebatuz, pertsonak aldaketa horren parte eginez, lantegiak eta ekipamenduak behar bezala prestatuz. Digitalizazioan aurrerapausoak eman ahal izateko, enpresek pertsonen formakuntzan eta ekipamendu modernoetan inbertitu



behar dute, balio erantsi handiagoa duten produktuak fabrikatu ahal izateko eta lehiakortasuna handitzeko, punta-puntako teknologiak eta ekipoak erabiliz, eta, aldi berean, kualifikazio handiko lanpostu egonkorak sortuz.

Talentua industriara erakartzea ere aipatu zenuen.

Sektoreak duen beste erronka garrantzitsuetako bat da. Ondo prestatutako pertsonen lagunduko digute hazten, lehiakorrak izaten eta etorkizuneko proiektuak eraikitzen. Prestakuntza altuko jendea duen sektorea gara, eta enpresek trebakuntzan inbertitzen dute. Horrela, lanpostu egonkorak ditugu. Gaur egun, ordea, prestakuntza ziklo teknikoak amaitzen dituzten gazteak ez dira nahikoa sektorean dagoen lan eskaintzari erantzuteko. Gazteei beraien etorkizun profesionalen gure sektoreak zer eskaini diezaiekeen erakusteko beharra dago. Enpresek, hezkuntza komunitateak eta erakundeek bat egin behar dugu erronka honi aurre egiteko. ■



SARRALLE, INDUSTRIA INGENIARITZA SEKTORE ANITZEN ZERBITZURA

Ingeniaritza, bezeroaren neurria

Sarralle enpresa taldea 1965ean sortu zen, Azpeitian, eta aitzindaria da siderometalurgia, ingurumen eta energia sektoreetako industria ingeniari-tzan.

Industria, energia eta ingurumen sektoreetan bezeroen neurria egokitutako ingeniari-tza proiektuak gauzatzen ditu enpresak. Aipatutako sektoreetan, diseinua, ingeniari-tza, fabrikazioa, logistika, obra zibila zein ekipamenduak eta instalazioak martxan jartzea aukeran eskaintzen ditu konpainiak.

Bost negozio lerro ditu Sarrallek, eta horien bidez altzairutegien, ijezketaren edo laminazioaren, metalezko bobinen, ingurumenaren, energiaren edota biltegitratze sistemen arloak jorratzen ditu.

Lantaldea

600dik gora pertsona ari dira gaur egun lanean enpresan, Azpeitian, Zumaian, Venta de Bañosen (Palentzia), Madrilen zein beste hainbat herrialdeetan dituen lantokietan. Sarralleko langileen %40k goi mailako ikasketak dituzte, eta horietako

asko automatizazioan zein egitura zibilak, mekanikoak, hidraulikoak edota elektronikoak diseinatzeko espezializatutako ingeniariak dira, une oro erantzun tekniko egokiena eskaintzeko lan egiten dutenak.

Internazionalizazioa eta esportazioak

Sarrallek asko hedatu du bere jarduera nazioartean. Hain zuzen, produkzioa bideratutako lantokiak ditu Indian eta Mexikon, eta ingeniari-tza lanak zein lan komertzialak jorratzen dituzten beste hainbat bulego eta lantoki ditu Algerian, Txinan, Dubain, Indian, Italian, AEBetan, Mexikon eta Turkian. European, Indian, AEBetan, Ekialde Hurbilean eta Txinan ditu esportazio merkatu nagusiak, eta kanpo merkatu horietatik datorkio negozioaren %80 inguru.

Etorkizunerako asmoak

Hedapen geografikoa areagotzea eta dibertsifikazioan sakontzea dira Sarralleren etorkizuneko erronkak, siderurgiari at dauden sektoreetan jorratzen hasi den bideak zabalduz eta finkatuz. Hain zuzen, hondakinen balorizazioa-

rekin, uraren tratamenduekin eta hidrogenoaren teknologia berriekin energia eta ingurumen sektoreetan hasi berri duen ibilbidea sendotzea nahi du konpainiak.

Talentua erdigunean

Lantaldea eta hori osatzen duten gizon-emakumeak oso garrantzitsuak dira enpresarentzat, orain eta etorkizunera begira. Horren jakitun da Sarralle eta, horregatik, buru-belarri ari da talentu bila zein talentuari eusteko lanean; eta nola ez, emakumeen talentu bila ere bai.

Bide horretan, baditu zenbait egitasmo martxan, eta hainbat helburu bete nahi ditu horiekin. Emakumeak zientziaren eremuan hezteko nahiz gizonen eta emakumeen arteko teknologia arrakala etetea da horietako bat, zuzendaritza eta ardura postuetara iristen lagunduko dien formakuntza bultzatuz. Ingeniari-tza ikasketak dituzten edo ikasten ari diren bertako gazteek enpresa ezagutu dezaten ere lan egiten du Sarrallek, konpainiak lantzen dituen esparruetan espezializatzeko eta etorkizunean bertan lan egiteko helburuarekin.

“TALENTUAK BERE BIZIKO GARRANTZIA DU”

Leire Elguren
SARRALLEKO MARKETIN ETA
KOMUNIKAZIO ZUZENDARIA

Zer garrantzia du talentuak enpresetan?

Berebizikoa. Enpresentzat lehentasunezko helburua da talentua erakartzea eta talentuari eustea, lehia-kortasuna eta espezializazioa areagotzeko. Oinarritzakoa da talentua konpainietara erakartzea, baina oinarritzakoa da enpresek beren burua ezagutarazteko eta talentua aurkitzen den tokietara gerturatzeko ahalegina egitea ere. Formakuntza da talentua enpresetan txertatzeko bideetako bat; neska eta mutil gazteek beren prestakuntza prozesua konpainietan jarrai dezaten ahalbidetzea, adibidez.

Talenturik ba al dago Euskadin?

Bai, noski. Euskadin talentu asko dago, ikasketen maila alde batera utzi gabe, gazteak oro har oso ondo hezita eta prestatuta baitaude beste hainbat trebeziatan. Baina talentua bilatu egin behar da, eta erakarri. Hain justu, neska-mutil gazteak oso ondo prestatuta daudelako eta merkatua ezagutzen dutelako, behar bezain erakargarriak diren eskaintzak egin behar dizkiegu enpresek gazte horiei, beren interesa pizteko lehendabizi, eta proiektura batzeko gero.

Zer bide lantzen ditu Sarrallek neska-mutil gazteengana gerturatzeko?

Sarrallen, talentua oro har eta bereziki emakumeen talentua erakartzeko zenbait egitasmo ditugu martxan; eta itunak ere baditugu, unibertsitateekin zein gai hauek jorratzen dituzten beste erakunde batzuekin. Geure proiektuei dagokienez, batetik, Sarralle Grow ekimena dugu: zientzia edota teknologia arloetan gradu bikoitzeko ikasketak egiten dituzten emakumeei zuzendutako urte anitzeko beka programa bat da; gizonen eta emakumeen arteko teknologia arrakala murriztea da beka horien helburuetako bat, eta zuzendaritza eta ardura postuetan emakumeen presentzia aregotzen laguntzea ere bai. Beka jasotzen duten ikasleei praktikak Sarrallen egiteko aukera eskaintzen zaie, eta Sarrallerekin lanean jarraitzeko aukera ere bai. Bestetik, Sarralle-Urola Talent martxan jarri berri



Ezkerretik eskuinera: Mari Carmen Uranga, Leire Elguren eta Marta Garcia.

dugu. Sarralleko edozein departamentutan aplikatu daitezkeen gradu edo master amaierako ingeniari-tza proiektu onenak saritzeko sortu da programa, eta Urola bailarako Ingeniaritza ikasleei zuzenduta dago.

Zer ekarpen egiten du programa horrek?

Espezializazioa, eta neska-mutil gazteek beren formakuntza enpresan jarraitzea. Are gehiago: industriari aplikazioa izan dezakeen Ingeniaritzako edozein adar ikasten ari direnek Sarrallen gurekin lan egiteko aukera izatea. Diru-saria ere erakargarria da. Master amaierako proiektu onenaren saria 5.000 euro eta enpresak kontratatzeak aukera dira; gradu amaierako proiektu onenaren egileak, berriz, 2.000 euro jasoko ditu eta lan kontratua egiteko aukera ere eskainiko zaio, ikasketekin jarraitzeko asmorik ez badu.

Emakume talentuak bultzada gehiago behar du?

Ingeniaritzaren esparruan oso urria izan da beti emakumeen presentzia. Sarrallen egoera horri aurre egiten saiatu gara. Adibidez, areagotu egin dugu emakumeen presentzia zuzendaritza batzordean. Gure Berdintasun Planean askotariko malgutasun neurriak jaso ditugu, baita telelana ere; gizonen zein emakumeen zuzendutako neurriak dira, erantzunkidetasuna baita bultzatu nahi duguna. Gainera, emakumeen lanari ikusgarritasuna ematen saiatzen gara beti, sektorearen barruan erreferentziak sortzeko. Oso-oso garrantzitsua da lan-keta hori guretzat. ■



2022KO EGITASMO ESTRATEGIKOAK, PREST

Urola Kostako Udal Elkartean sendotu egin ditugu herritar eta ekintzaile nahiz enpresen lehiakortasunari begirako zerbitzu trinko guztiak.



LOURDES SALSAMENDI GOÑI

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO
LEHENDAKARIA

Eskualdea berrabiarazteko aukera aproposa dela sinetsita, aurrera begira ehun sozioekonomikoa zaintzea dugu helburu, eskualdeko herritarren ongizatea babesteko eta datozen belaunaldien etorkizun soziala eta ekonomikoa bermatzeko.

Gure egin dugu ezinbesteko gizarte eraldaketari erantzuteko erronka, zerbitzu publiko guztiak indartuz, susperraldia pertsona eta eskualdeko eragile guztien-gana irits dadin. Horretarako sendotu ditugu herritarrei eta ekintzaileei nahiz enpresen lehiakortasunari begirako zerbitzu trinko guztiak.

Berrikuntzaren bidetik, baliabide publiko eta sozial gehiago bideratuko ditugu garapen so-

zioekonomikoa suspertzeko. Iraunkortasuna ipar, klima-aldaketaren aurkako borrokarekiko eta ingurumenaren zaintzarekiko erabateko konpromisoa berretsi nahi dugu.

Ildo horretan, abian ditugu 2022an zehar gauzatuko diren zenbait ekimen estrategiko:

Urola Kostako Energia Plana 2022-2026

Urola Kostako 2022-2026 Energia Plana garatu du Urola Kostako Udal Elkartek eskualdeko gainerako eragileekin elkarlanean.

Nazio Batuen Garapen Jasangarriko 2030era begirako helburu nagusiei erantzuteko, egitasmoaren helburua da eskualdeko energia aurrezpena sustatzea. Eraginkortasunaren bidetik, energia berriztagarriak bultzatuko dira, erregai fosile-

kiko menpekotasuna gutxitzeko eta garapen iraunkorrari dago-kionez urrats sendo bat emateko.

Egitekoen lehentasunak zehazteaz gain, eskualde mailako mahaiak egingo du proiektuaren jarraipena.

Zarauzko Garbigune berria

Inbertsioa sustatzera eta zerbitzu publikoak indartzera dator Zarauzko Garbigune berria.

Eskualdeko garapen jasangarri baterako ezinbesteko azpiegitura izateaz gain, herritarrei zerbitzu publiko egokiagoak eskaintzea eta lanpostu berriak sortzea ere ahalbidetuko du.

Garbigune berria Urola Kostako Udal Elkartek Urdaneta kalean duen egoitzaren alboko partzelan kokatuko da, eta 3.307 metro koadro izango ditu. Inbertsioa 1.951.248,47 eurokoa

izango da, eta bere osotasunean Urola Kostako Udal Elkarteko funtsetatik finantzatuko da.

Garbigune berriarekin hondakinen kudeaketako araudi berrietara egokituko da eskualdeko bilketa zerbitzua. Jasangarritasuna oinarri, ekonomia zirkularraren aldeko apustu garbia egin da, besteak beste, gailu elektronikoen berrerabilpena modu aktiboan bultzatuko baita.

Berrikuntza eta enpresa ekimenak garatzeko elkarlanerako gune teknologikoa

Punta-puntako teknologiaz hornitutako gune balioanitz eta berritzailea eraikiko da. Eskualdeko ekintzaileentzat eta enpresa sarearentzat elkarlanerako erreferentziatzeko gune bat izango da; enpresa ekimenak garatzeko gune teknologikoa berritzaile bat. Ekosistema oso bat eraiki nahi da, partaidetzaren eta ko-sortzearen kulturatik abiatuta, herritarren arteko elkarlana eta sinergiak lortzeko.

Bi espazio nagusitan banatuko da gunea. Alde batetik, **co-working-erako** espazio bat prestatuko da. Sektore anitzeko emakumezko ekintzaileak jarriko dira erdigunean, jardun profesionalak elkarrekin partekatu eta harreman sareak eta proiektu berriak garatzeko.

Bestetik, **laborategi teknologikoa** ere izango da. Herritarrek eskuragarri izango dute teknologia digitala, gaitasun tekno-

Ehun sozioekonomikoa zaintzea da gure helburua, eskualdeko herritarren ongizatea babesteko

Datozen belaunaldien etorkizun soziala eta ekonomikoa bermatu nahi ditugu oraingo ekintzekin

logikoetan treba daitezen, eta esperimentazioaren bidetik, eredu berrietan oinarritutako proiektu berritzaileak gara ditzaten.

Itsas Kirol Poloa

Zinez, proiektu estrategiko eta aitzindaria da. Hazkunde jasangarriaren bidetik aurrera egiteko, eskualdeko ekonomia urdinaren balio kateak duen potentzialitatea aintzat hartuta garatuko da Itsas Kirol Poloa.

Garapen ekonomikoaren ikuspuntutik, eskualdeko itsas nortasuna aintzat hartu eta ikerketa, garapena eta berrikuntza bultzatuko dira, ekonomia lehiakortasuna eta hazkunde jasangarria helburu, itsasoaren inguruan garatutako jarduera ekonomiko guztiak eraginkortasunez ustiatzeko.

Formakuntza eta ikerketa zentro izatetik hasi, eta eskualdeko ondarea eta industria kontuan hartuta, itsas kirolen esparrua jorratuko da eskualdeko garapenaren eta elkarlanaren akuitu gisa.

Emankorra izan da orain arteko ibilbidea. Hiru hilabete-tako parte hartze prozesuaren ondoren, zehaztuta baitaude egitasmoaren lan ildo estrategikoak. 2022an bertan loratuko dira Europara begirako lehen egitasmoak.

Aipatutako proiektuez gain, azpimarragarria da eskualde osorako lantzen ari garen turismo estrategia berria. Datozen urteetan garatuko da, sektorearen kalitate nahiz lehiakortasun eta iraunkortasun printzipioak aintzat hartuta. Zentzu horretan, mugarri garrantzitsua izango da 2022. urtea, lehen mundu biraren 500. urtemugaren harira eta Elkanoren legatuaren jiran, eskualde bost herriak elkartu eta mundu zabalean gure eskualdearen eta gure kulturaren berri emateko.

Abagunetzat ditugu paradigma berriak bizkortutako trantsizio demografikoa, energetikoa eta digitala. Oinarri horien gainean, Urola Kostako Udal Elkarteak ekonomia iraunkorren eta urdinaren aldeko apustua egin du. Lankidetzaren oinarri, datozen urteetan garatuko ditugun politika publikoek etorkizun sozialagoa, iraunkorragoa, lehiakorragoa eta inklusiboagoa izango dute jomuga.

Norabide horretan eraiki nahi dugu gure etorkizuneko eskualdea; gure etorkizuneko Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumai. ■

ONGIZATEA HELBURU DUEN LEHIAKORTASUNA

Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuan lehiakortasunerako eredu berri baten inguruan hausnartu dugu azken urtean, eta emaitza datozen egunetan aurkeztuko dugu EAEko Lehiakortasunari Buruzko 2021eko Txostenean.



MARI JOSE ARANGUREN

ORKESTRAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Lurralde baten lehiakortasuna eta garapena bultzatzeko ez da nahikoa aurrerapen ekonomikoa sustatzea. Garapen ekonomikoak eta horretarako gako garrantzitsuak den berrikuntzak pertsonen eta gizartearen ongizatea bilatu behar du. Ildo horretatik, gero eta ugariagoak dira garapena sustatzeko barne produktu gordinetik harago joan behar dugula dioten egitasmoak: Nazio Batuek urtero argitaratzen duten Amartya Senen Giza Garapenaren Indizea (GGI), Garapen Jasangarrirako Helburuak eta haiek neurtzeko Nazio Batuek proposatutako sistema...

Bestalde, mundu mailan erronka oso garrantzitsuak ditugu momentu honetan, hiru trantsizio handiri dagozkienak: energia eta klima aldaketaren erronka; eraldaketa digitalak eta teknologi aurrerapenak jarduera ekonomikoetan, pertsonen gaitasun-beharretan eta etorkizuneko



lanean sortzen dituen aldaketen aurreko erronka; eta osasunaren eta zaintzaren inguruan bilakera demografikoak sortzen digun erronka. Erronka horiek guztiek lurralde batean pertsonen ongizatea bultzatzeko duen lehiakortasuneko eredu berriua eskatzen dute, eta Orkestran azkeneko urtean zehar gogoeta anitz egin dugu eredu berri hori lantzeko.

Ongizatearen zerbitzura dagoen lehiakortasunak ekonomia eta enpresa emaitzen dimentsioak eta giza ongizatearen emaitzen dimentsioak uztartzen ditu (irudian erdigunean urdinez daudenak). Dimentsio horiek eta elkarren arteko eragina bi elementu multzok baldintzatzen dituzte: alde batetik, lurraldeko egiturazko ingurunearen elemen-

tuek, epe labur eta ertainera aldatzeko zailak direnak (irudian ezkerrean), eta, beste alde batetik, palanka dinamikoak (irudian eskubian), hainbat norabidetan erabil eta gara daitzeko, ongizatearen zerbitzura egongo den lehiakortasuneko aldaketak eragiteko. Gainera, zeharkako oinarritzko beste zenbait elementu ere erantzen dira, besteak beste, inklusibitatea eta nazioarteko lotura.

Pertsonen ongizatea sustatzea litzateke azken helburua, eta horretarako, pertsonen ondorengo sei dimentsio hauek ongizatea izatea bilatu behako genuke:

- **Bizitza baldintza materialak:** lurralde batean bizi diren pertsonen bizitzaren dimentsio

materialak (diru sarrerak, etxebizitza...)

- **Enplegua:** lurralde batean bizi diren pertsonen enpleguaren kantitatea eta kalitatea.

- **Ikaskuntza:** lurralde batean bizi diren pertsonen hezkuntza eta prestakuntza maila eta ikasketo gaitasuna.

- **Osasuna:** lurralde batean bizi diren pertsonen osasuna.

- **Gizarte bizitza:** lurralde batean bizi diren pertsonen bizitzako gizarte dimentsioak.

- **Ingurumena:** lurralde batean bizi diren pertsonen ingurumen kalitatea.

Pertsonen ongizatearen eta ekonomia eta enpresen emaitzen artean elkarreragina dago, eta lurraldean elkarreragin hori ahalik eta positiboena egitea ahalbidetuko duten estrategiak eta ekimenak sustatu beharko genituzke. Ekonomia eta enpresen emaitzen artean ondorengoak bereizten ditu Orkestrak garatutako ereduak:

- **Produktibitatea eta biztanleko BPG:** lurralde bateko lehiakortasun ekonomikoaren azken adierazleak dira, lurraldeko ekonomia eta enpresa sistemak balio erantsia sortzeko duen gaitasuna neurtzen baitute.

- **Enpresen errentagarritasuna:** enpresa lehiakortasunaren azken adierazlea da, eta lurraldeko ekonomia eta enpresa sistemak beren jardueretan errentagarritasuna sortzeko duen gaitasuna neurtzen du.

- **Berrikuntza:** enpresen eta lurraldearen lehiakortasunaren funtsezko baldintzatzailea da, eta lurralde bateko ekonomia eta enpresa sistemak berrikuntza emaitzak sortzeko duen gaitasuna neurtzen du.

- Ekoizpenaren eta merkataritzaren **nazioartekotzea**, lurralde bateko ekonomia eta enpresa sistemak nazioartera ateratzeko duen gaitasuna dela ulertuta. Enpresen eta lurraldearen lehiakortasunaren errendimendua islatzen du.

Lurralde baten garapen ereduaren azken helburuak herriarren ongizate maila areagotzea izan behar du. Lehiakortasuna eta ekonomia eta enpresa emaitzak bitarteko helburuak dira, eta ez azken helburuak. Bitarteko helburuak izanik, helburu horiek lortu behar dira, pertsonen ongizate maila areagotzeko. Baina, praktikan, pertsonen ongizateak eta ekonomia eta enpresen lehiakortasunak eta errendimenduak elkar eragiten dute. Adibidez, ekonomia eta enpresa errendimendu onak BPG handitzea ahalbidetzen du, eta horrek ekarriko du pertsonen errenta handitzea, enplegu maila handitzea, hezkuntza eta osasunean egiten den gastu publikoa handitzea, gizarte egonkortasuna handitzea, natur baliabideak efizientzia handiagoz erabiltzea eta ingurumena babesteko inbertsioak egiteko ahalmen handiagoa izatea. Horiek guztiek, azken batean, bizitzarekiko gogobetetasuna handituko dute. Baina, aldi berean, herritarren errenta maila handiagoak eskari sofistikatuagoa ekarriko du, baita pertsonen kualifikazio handiagoa eta osasun hobea ere. Eta horrek produktibitatea areagotuko du eta, bide batez, ekonomia eta enpresa errendimendua hobetuko du.

Gizarte batean pertsonak, ordea, desberdinak dira jatorrizko

ezaugarriengatik (sexua, arraza...) edo norberak egindako akerengatik (erlijioa, adskripzio politikoa...). Gainera, hainbat harreman esparru dituzte (familia, lan esparrua, gizarte esparrua...) eta, horien arabera, talde desberdinetan baneratzten dira. Eredu honekin bilatzen dugun ongizatea ongizate inklusiboa da, hau da, gizarte osatzen duten pertsona guztien ongizateak ekitatiboa izan behar du dimentsio desberdin hauetan, eta, aldi berean, kolektibo guztiek, nork bere esparruan eta bere estrategiarekin, ongizate inklusibo horren eraikuntza lagundu beharko lukete.

Azkenik, nazioarteko lotura da zeharkako beste elementua, ongizateak iraunkorra izateko belaunaldien barneko erantzunkidetasuna (lurralde jakin baten barnean eta gainerako gizarteekin) eta belaunaldien artekoa (etorkizuneko belaunaldiekin) eskatzen baititu.

Eredu honek lurralde bateko lehiakortasun eta ongizate eredu aztertzen lagundu beharko liguken, ezagutzeko lurralde bakoitzak lehiakortasunaren eta ongizatearen zein dimentsiotan dituen indarguneak eta zeinetan ahultasunak, hala, erronkak eta aukerak identifikatu eta lurraldeko pertsonen ongizatearen zerbitzura egongo den lehiakortasuna sustatzeko estrategiak eta ekimenak martxan jartzeko.

Guk lehen pauso gisa, eredu hau Euskal Autonomi Erkidegora aplikatu dugu, eta lan horren emaitzak datozen egunetan izango dituzue eskuragarri EAEko Lehiakortasunari Buruzko 2021eko Txostenean. ■

BURUJABETZA TEKNOLOGIKOAN OINARRITUTAKO GARAPEN DIGITALA

Konektatuta bizi gara: lagunekin edukia partekatzen dugunean, autoz gidatzean, telebista piztu, sarean jolastu edo bideo bat ikustean... une horietan guztietan enpresa erraldoiek gure jarduna neurtu eta zaintzen dute haien interesen arabera gure erabakiak bideratu nahian. Egoera honen aurrean, burujabetza teknologikoa ezinbestekoa da norbanako eta komunitate txikien askatasuna sarean zaindu eta bermatzeko, eta zumaiaarrak aitzindari gara bide honetan.



JOSU WALIÑO

PUNTUEUS FUNDAZIOKO ZUZENDARIA

Nire inguruko pertsona askok egin didate galdera bera azken hilabeteotan: merezi du Zumaian sortu den "Internet horretan" alta ematea? Ohikoa den moduan, prezioari begiratzen diote batez ere, eta, Zumaian garatu berri den zuntz optiko herritarren eskaintza enpresa handien eskaintzen parean jarrita, ez dute alde handirik ikusten.

Ikuspegi hau izatea normala da, ez baita erraza ulertzea non egon daitekeen Interneteko konexio baten onura prezioaz eta abiaduraz harago. Beraz, zertarako behar dugu herri kooperatiba batek eraikitako zuntz optikoa enpresa handiek antzeko zerbitzua eskaintzen dutenean?

Galdera hauen erantzuna garbia da: bai, merezi du "Internet horretan" alta ematea, bistan gelditzen ez diren onurak ditue-

lako. Enpresa handien eskaintzarekin alderatuta desberdintasuna nabarmena baita: zumaia-rron garapen sozial, teknologiko eta ekonomikoan eragiten duen proiektua da.

Proiektuaren izaera uler dezagun, Zumaian sortu den "Internet hori" Zumaia-ko Udalak herrian zabaltzen duen zuntz optiko sarea da. Teknikoki badago alde bat, benetako zuntz optikoa zabaltzen delako herriko txoko guztietara abiadura simetrikokoak eskainiz. Kontzeptu hau garrantzitsua da, abiadura simetrikokoak bermatzen duelako datuen igoera eta jaitzierako abiadura berdina izatea. Normalean enpresek eskaintzen duten abiadura asimetrikokoak izaten da, hau da, 300 Mbps-ko abiadura kontratatuta badugu, abiadura hori jaitzierakoa izaten da, eta, igoerakoa, berriz, horren %10 inguru izan ohi da. Baina proiektuaren desberdintasun nagusia ez da teknikoa, filosofi-

koa baizik, burujabetza teknologikoa baitu oinarri: sare honen administrazioa erabiltzaileek eta udalak osatutako kooperatiba baten eskuetan dago, eta, horrek, izugarritzko balioa eta potentziala dauka.

Burujabetza teknologikoa hitz egiten dugunean, herritarren askatasun teknologikoa ari gara, bai azpiegituraren ikuspegitik, bai pribatasun zein komunikazio teknologien ikuspegitik. Eredu honek erabiltzailea ahalduztzea du helburu enpresen eta gobernuen interesen aurrean. Ez dezagun ahaztu Internet dela gaur egungo komunikazioen muina, eta, ondorioz, eragiten dituen interes ekonomiko, sozial eta politikoak izugarriak dira.

Freedomhouse enpresak argitaratutako azken txostenaren arabera, 2021. urtean Interneteko askatasuna gutxitu egin da 11. urtez jarraian. Gobernuak adierazpen askatasuna murriztu

dute sarean legeak, arauak eta mugak ezarriz. Estatu Batuetan sareko neutraltasuna desagertu izana da horren adibide garbi bat: Estatu Batuek Trumpen agindupean onartutako legearen ondorioz, telekomunikazio enpresek Interneteko abiadura desberdina ezar dezakete erabiltzaile edo zerbitzuen arabera, bi abiaduratako Internet bereiziz. European, gaur egun, ez da horrelakorik aurreikusten, 2016an Interneteko neutraltasunaren aldeko erabakia onartu zelako, baina aurkako interesek hor jarraitzen dute.

Sarearen kontrola herrian sortutako kooperatiba baten esku egoteak interes horien eragite maila murriztu dezake. Zumaia-ko zuntz optikoaren kasuan, erabiltzaileen kontrolpean dagoen kooperatiba izanik, datuen pribatutasuna ere bermatzen da, gure nabigazio ohiturak, datuak eta abar ez daudelako enpresa erraldoien esku. Zuntz optiko herritarraren balioa ez da prezio kontua, filosofia kontua baizik. Gure datuen kontrola, gure nabigazioa eta gure sareko askatasuna enpresa pribatuen interesen esku uztea garesti ateratu daiteke.

Erabiltzailearen ikuspegi hutsetik harago, garapen soziale-rako eta ekonomikorako tresna baliagarria da herritarron zuntz optikoa. Digitalizazioaren demokratizazioak berebiziko garrantzia du *online* irakaskuntza eta telelanaren garaian, eta, horretarako, ezinbestekoa da Interneten erabilera eskubidea



babestea, herritar guztientzat eskuragarri eginez Internetera sarbidea. Merkatua ikuspegi ekonomiko soiletik harago baloratzen duen ekonomia sozialeko proiektu batek kontuan hartzen du sarea denon eskura jartzeko beharra.

Aurreko guztiak ez du esan nahi interes ekonomikorik gabeko proiektu bati buruz ari garenik. Datozen urteotan garapen nagusia izango duten sektore industrialen edozein zerrenda aztertzen badugu, lehen postuetan ingurune digitalarekin zerikusia duten industriak daude: adimen artifiziala, big data, zi-bersegurtasuna edo industria 4.0, esaterako, eta industria

horiek garatzeko ezinbestekoa da azpiegitura teknologiko ego-kia ezartzea. Zumaia-ko Udalaren apustua interesgarria da zentzu horretan, ate berriak zabaltzen dituelako Zumaian hain errotuta dauden ohiko industriatik eta turismotik harago. Industria 4.0 da gaur egungo industriaren oinarria, eta, horretarako azpiegitura eta zerbitzuak ezarri behar dira. Baina, horrez gain, ekin-tzailatza digitalak ate berriak zabalduko ditu datozen urteotan, humanitate digitalak, adimen artifiziala, aisialdia edo datuen analisisan oinarrituta, esaterako.

Lehen urratsak eman dira, zuntz optikoaren inguruan zerbitzua eskaintzen duten enpresa txikiak sortu direlako eta lehendik zeudenak zerbitzu berriak eskaintzen hasi direlako. Kooperatibak ezarritako eredua ere interesgarria da, proiektu hau ekonomia sozialean oinarritzen baita. Zerbitzu eta enpresa berrietarako oinarriak ezarrita daude garatutako azpiegiturari esker; orain, abiadura hartzeko garaia iritsi da. ■

Burujabetza teknologikoaz hitz egiten dugunean, herritarron askatasun teknologikoaz ari gara, bai azpiegituraren ikuspegitik, bai pribatutasun zein komunikazio teknologien ikuspegitik



ELKARMEDIA: BERRIKUNTZAREN ONDOAN LANEAN

Informatika ingeniari-tza enpresa da Elkarmedia, eta aurren 25 urte bete ditu. Neurri-egindako web aplikazioak eta teknologia digitaleko baliabideak eskaintzen dituzte enpresako 25 gizon-emakumeek. Jose Antonio Sudupe zuzendariaren arabera, "aparteko taldea" osatzen dute. "Lana atsegin handiz egiten dugu. Proiektu berritzaile asko egiten ditugu, eta, gainera, sormen handikoak, iraunkorrak eta ausartak dira horietako asko".

Elkarmediak Ikerkuntza, Garapena eta Berrikuntza (I+G+B) markan oinarritutako produktuak, baliabideak eta zerbitzuak bultzatzen ditu. Bezeroen prozesuak "optimizatuz", eskaintza teknologiko eta sektorial berrien sorrera bultzatu eta negozio eredu berrietan esku hartzen du. Tecnalia gune teknologikoarekin kolaboratzen

du, eta ikerketetan eta produktuak kaleratzen laguntzen dio horri. "Gure helburua da proiektu berriak sortzea. Gune teknologikoek demo proiektuak egiten dituzte enpresentzat, eta guk jarraipena ematen diegu horiei, enpresan errealitate bihurtuz eta aplikatuz".

Elkarlana "balio erantsi" gisa ulertzen dute Elkarmedia enpresan, eta sektore desberdinetara bideratzen dute lana: hezkuntza, industria enpresak, administrazioa, kulturgintza eta turismoa nahiz merkataritza. Industriarena da Elkarmediarentzat sektore garrantzitsuen. Sidenor, Irizar, Juaristi, Xubi, Fagor Arrasate, Altuna y Uria eta Ausolan enpresekin dihardu lanean. "Enpresei neurri-egindako aplikazioak ematen dizkiegu. Automatizatze-ko dituzten prozesuak identifikatzen laguntzen diegu, baita horiek bi-

deratzeko web aplikazioak eta mugikorrek irtenbideak eskaini ere. Horrez gain, web atari berriak ere sortzen dizkiegu". Sortu dituen azken atariak dira *urolaturismoa.eus* eta *gipuzkoafutbola.eus* webguneak.

Udalen bazkide teknologikoa ere bada Elkarmedia. Erakundeetan aholkularitza eman eta administrazio elektronikoa txertatzen dute. Hezkuntza arlorako, berriz, Inika plataformaren sortzaileetakoa da Elkarmedia. "Soluzio integrala" eskaintzen die ikastetxeei eta ikasleei, eta egun Euskal Herriko 200 ikastetxek eta 50.000 familiak baino gehiagok erabiltzen dute. Euskal kultur arloan ere lan egiten du Elkarmediak. 2017an, Euskal Kulturgintza S.A. (Elkar) enpresarekin harremanak sendotu zituen, eta harrezkero, euskal kultur enpresek eta erakundeekin ere badihardu: Euskaltzaindia, *Jakin* aldizkaria, Elkar argitaletxea... Era berean, merkataritza eta turismo arlorako zerbitzu digitalak eta *online* produktuak eskaintzen ditu enpresak, tokiko merkataritza eta turismoa "globalizazioaren aurrean indartzeko". Dendago da alor horretarako Elkarmediak garatu duen plataforma.

Lana zenbait ardatzetan banatzen du Elkarmediak; izan ere, software garapenaz eta webguneen diseinuaz gain, zibersegurtasun industrialak ere eskaintzen du. Elkarmedia berrikuntzan ari da lan egiten, eta beraien software proiektuetan adimen artifiziala sartzeko irizpideak ari da lantzen. "Arriskuan dauden enpresen segurtasun arazoei irtenbideak eskaintzen dizkiegu. Hori gutxi ez, eta urruneko laguntza eskaintzen duten tresnak eta zerbitzuak bideratzen ditugu. Egunero ari gara gizarteak egun eskatzen dituen eta ziurrenik etorkizunean eskatuko dituen gauzak aurreratzen. Hor egiten du apustua Elkarmediak". ■



08



Ikus-entzunezkoak



- ZUZENeko EKITALDIEN EMISIOA
- BIDEo KORPORATIBOAK
- BIDEo MARKETINA
- SARE SOZIALETARAKO IKUS-ENTZUNEZKOAK
- PUBLIRREPORTAJEAK

GUKA

ZERBITZUAK



09

Argitalpen
digital
multimedia

01

Publizitatea



Papera



Atari digitalak



Telebista

02



Estrategia eta
planifikazioa

03



Komunikazio
kanpainak

04



Edukien
sorkuntza

05



Webguneak eta
marketin
digitala

06



Diseinu
lanak

07



Identitatea
eta marka irudia





ASTIGARRAGA KIT LINE, NATURAREN ORDENA

Juan Jose Astigarragak ingurunea eta egurra maite zituen, eta bera baso jabea izanik, tailer txikia sortu zuen 1985. urtean, zurezko astoak egiteko eta, prozesu horretan, hain maitea zuen ingurunea eta basoak zaintzeko. Gaur egun, 23 milioi euroko fakturazioa duen enpresa da Astigarraga Kit Line. Eskualdeko enpresa garrantzitsuenetarikoa da, beraz, baina egungo egoera hori egi bihurtzeko, atzeko lana da oinarria.

Prozesu osoaren jabe da Astigarraga Kit Line: "Katalogoan eskaintzen ditugun produktu horiek guztiak egiteko beharrezkoak diren pauso denak kudeatzen ditugu. Gainera, jakitun gara lehengaiak zaintzeak duen garrantziaz; gure kasuan, egurra da lehengai. Izan ere, menditik hasten da prozesua, horiek kudeatzen ditugu, eta erosten ditugun pinuek PEFC ziurtagiria dutela bermatzen dugu", azaldu du Astigarraga Kit Lineko zuzendari nagusi Jaione Badiolak.

Baina, zer da PEFC? PEFC ziurtagiriak hornidura kate osoan egiten du lan, basoan jardunbide egokiak sustatzeko eta produktuak ingurumen, gizarte eta etika arau zorrotzenak errespetatuz ekoizten direla bermatzeko. Hau da, moztan duten zuhaitz horren ordeztu etorkizunean beste zuhaitz bat egongo dela baieztatzen du, ingurumenaren etorkizuna ziurtatuz.

Ez da basoaren edo egurraren ziurtagiria soilik. Ondorengo prozesu osoan ere PEFC ziurtagiria du enpresak: enborra moztu eta basotik ekartzen dute, beren zerrategira eramaten dute ohol bihurtzeko, aire librean uztzi lehortzen, eta ondoren eramaten dute mekanizatura. "Oso garrantzitsua

da jakitea guk egiten dugun aktibitate guztia ekonomia zirkularraren kontzeptuaren barruan sartzen dela", gaineratu du Badiolak.

Prozesu guztia beraien menpe egoteak badu beste abantaila nagusi bat: enpresa da arduraduna eta kanpo faktoreek ez dute ezer baldintzatzen. "Ez gaude kontainer bat edo kamioi bat iritsiko ote den pentsatzen; prozesu osoko pauso denak zehazten, diseinatzen eta kudeatzen ditugu, eta gu gara arduradunak. Gure esku dago guztia".

Automatizazioa eta digitalizazioa

Zurgintza sektore zaharkitua dela pentsa dezake jendeak, makineriarik gabeko arloa dela, eta metalurgiak edo siderurgiak duten prestigioa falta duela. "Baina ez da horrela, prozesu hori guztia kontrolatzeko, hurrengo fasean gaudelako: Industria 4.5 edota 5.0. Data kudeaketak eta horrek gure taldearentzat duen garrantzia identifikatu ditugu, baita horretarako egin beharreko hobekuntzak ere, eta ezinbestekoak dira digitalizazioa eta automatizazioa. Digitalizazioaz ari garenean, esan nahi dugu baso batetik enborra ekartzen dugunean, ordenagailuan izango dugula enbor horren informazio guztia: zuhaitza, tratamenduak, zainketak... Dena! Gainera, horrek guztiak enpresa barruko lehiakortasuna hobetzen lagunduko digu. 130 laguneko lantaldea gara, baina lana ondo eta giro onean egiten da, horrek ematen baititu emaitzak", agertu du Badiolak.

Teknologia pertsonen egunerokoan sartuta dagoen gizarte honetan, ordea, pertsonak dira beharrezkoenak. "Pertsona kualifikatuak behar

ditugu, eta, materiala bezala, bertakoak izatea. Ingeniariak, lanbide heziketan ikasi dutenak, teknikoak... nahi ditugu gurekin lanean, hala lortuko baitugu gure produktua nahi duen bezeroaren esku egotea”.

Bezero horiek mundu mailan aurki daitezke, gainera; astoak, adibidez, Europako 20 herrialde-tan saltzen dituzte. “Azken finean, bertako egur-rrarekin, bertako enpresan eta bertako langileekin egiten den astoa Europa ia osoan saltzen da”.

Astigarragako astoak hasieratik hasi ziren Frantziara saltzen, baina, duela hamar urte inguru internazionalizazio prozesu indartsua abiatu zuten. Frantziak jarraitzen du merkatu garrantzitsuena izaten, %50 hain zuzen ere; Espainiak, adibidez, %20 suposatzen du, eta gainontzeko %30 Italia, Herbehereak eta Portugalen artean banatzen da.

Kalitatea eta funtzionalitatea, eskutik

Bi arlo lantzen ditu Astigarraga Kit Linek: batetik, astoak egiten ditu, eta, bestetik, antolamendurako altzariak. Astoak dira enpresaren produktu izarrak, edota balio gehien dutenak, asto horietatik sortu baitzen Astigarraga Kit Line. Astoak sortzeko orduan, iraunkortasuna da ezaugarri nagusia. “Funtzionalitatea da bilatzen dena, ez diseinua edo dekorazioa; iraunkortasuna eskaintzen dute. Hala ere, asto horietatik abiatuta, lerro berri bat zabaldu dugu: dekoratiboak izan daitezkeen astoak. Ikasteko, bazkaltzeko edota lanerako mahaia egiteko astoak eta taulak egiten ditugu”, azaldu du Marketin eta Merkaturaren zuzendari Izaro Astigarragak.

Beste arloa, berriz, altzariena da, eta antolamendura dago zuzenduta. Horiek ere funtzionalitatea dute helburu, forma eta posizio ugaritan jar baitaitezke; modularrak dira, eta ukitu berezia ematen saiatzen dira. Hala, apalategiak, kutxak edota botilategiak egiten dituzte. Arlo batean zein beste, itxura zaintzen dute. Irudiak eta argazkiak ateratzea garrantzitsua bihurtu da, eta horrek

online salmenta erraztu die. “Gainera, eremu eta kanal berrietara salto egitea ahalbidetu digu horrek”. Itxuraren garrantzia diseinura ere pasa dute, eta Ekolabel etiketa dute. “Ekonomia zirkularraren gaia beharra bihurtu da, eta gure produktuak ikuspuntu ekologikotik lantzen eta diseinatzen ditugu. Lanketa horri esker, Europak ematen duen Ekolabel etiketa dute gure astoek. Hala, egurra modu jasangarrian lortzeaz gain, gainontzeko materialak ere, pieza metalikoak adibidez, jasangarriak direla ziurtatzen dugu. Era berean, iraunkortasuna ere bermatzen dugu”. Lanketa bera ari dira garatzen altzarien arloan, eta 2022. urtearen hasieran, produktu guztiak ekologikoak izango direla espero dute.

Enpresa berdea kontzeptua oso serio hartzen duten gaia da, eta helburua lortzeko hainbat neurri hartu dute: erabat kendu nahi dute enbalajee-tako plastikoa –nahiz eta gaur egun erabiltzen duten plastikoaren %50 birziklatua den– eta bilgarri jasangarriagoa izateko bideak aztertzen ari dira; produktuak muntatzeko itsasgarria plastikoan jartzen zuten, eta hori ordezkatzeko, bertako enpresa bati hartu dizkiote barruan itsasgarria duten iltzeak edo kabilak; bizpahiru hilabetetan espero dute karbono aztarna ezabatzea; fabrikari sortzen duten energiatik beharrezkoa bakarrik hartzen dute eta gainontzekoa saldu egiten dute; eta txirbila erreta, biomasa sortzen dute.

Etorkizunera begira jarrita, pertsonekin, talde lanean, globalizazioak dakartzan arriskuak minimizatzea da Astigarraga Kit Linek duen erronka nagusia, eta lan horretarako kontuan hartzen dituzte bertako pertsonak eta materialak, eta teknologia. Horrela bakarrik lortuko baitute zerbitzu on bat eskaintzea. “Erronka handia da, baina gai gara aterabideak emateko, eta gure bezeroei behar dutenean behar dutena emateko, ingurunea, egurra, produktua eta pertsonak zainduz”.

Betetzear da Juan Joseren ametsa. ■



ASTIGARRAGA

kit line

www.astikitline.es



AURRERA EGITEKO, URRUNERA LANTEGITIK ATZERRIRA

Eskualdeko enpresek urteak daramatzate beren produktuak atzerrira saltzen, eta beren esperientzia pertsonala kontatu dute muntaketa lanetan ibiliak diren Placido Aranburu urrestildarrak eta Felix Arzallus errezildarrak.

Lantegitik kanpora joan-etorri asko eginak dira Placido Aranburu (Urrestilla, 1958) eta Felix Arzallus (Errezil, 1959), biak muntaketa lanetan. Iaz erretiratu zen Aranburu, eta duela bi hilabete, Arzallus. Aranburu, esaterako, 14 urterekin hasi zen lanean Azpeitiko Glual enpresan, eta erretiroa ere hantxe hartu zuen. Ordea, lantegi asko eta asko ezagutzen du barrutik. Ez alferrik, 22 urte zituenetik batetik bestera bidaiatzea tokatu zaio, muntaia lanak egiten. "Bittor Agiriano enkargatuak asko erakutsi zigun, hari esker

hasi ginen", azpimarratu du. Gertuko herrietara ez ezik, Madril (Espainia) aldera eta penintsulako beste hainbat tokitara joan izan da lanera, baita Norvegiara ere. "Han ikusitakoak gara elurra botatzen San Juan egunez", gogoratu du.

Urteekin, aurrerapen asko ezaugu du Aranburuk tailerrean.

Duela bi hilabete hartu zuen erretiroa Bieletik Arzallusek, eta iaz, Aranburuk Glualetik

Teknologia berriek hobekuntzak ekarri dituzte, eta bidaiatzeko moduak ere aldatuz joan dira. Hasieran bere autoan egiten zituen joan-etorriak. Gero, autoa alokairuan hartzen hasi zen enpresa. Ordea, aurrerapenak ez dute lortu muntaia lanak *online* azaltzea edo herritik mugitu gabe egitea. "Buzoa daramaten langile asko behar dira oraindik; gure sektorean, behintzat, beharrezkoak dira", esan du barrezka. "Hori bai, materiala hobe da teknologiarik esker".

Glualen ekipo hidraulikoak eta zilindro nahiz pistoiak egiten dituzte, eta horien muntaia egitera joaten zen kanpora, baita horien mantenua egitea ere. Zumaiaiko Lagun Artea eta Azpeitiko Sarralle enpresekin ere sarri joan da, haientzat Glualleko piezak jartzera. Mantenu lanak zirenean, hiruzpalau egun pasatzen zituen kanpoan; bestela, hilabete inguru. "Hama-bostean behin etxera etortzen ginen; ikusten bagenuen laster amaituko gurela gehiago gelditzen ginen, baina gehienez ere, hiru aste". Ingelesik jakin ez arren, "gastelaniaz justu-justu", ez du arazorik izan inoiz hizkuntza aldetik. "Norvegian,



Placido Aranburu, erretiroa hartu aurreko azken lanegunean.

esaterako, interpretea jarri ziguten, baina azkenerako ondo ulertzen genuen elkar haien laguntzarik gabe ere. Momentu batean gezurretan hasi ziren norvegiarrak, eta ederki ulertu zidaten kargu hartu nienean".

Aranburuk argi du zer den kanpora lanera joatearen alde ona: "Diru gehiago irabaztea". Beste aldean, berriz, ordu gehiago sartzea dago: "Presakako lana izan ohi da, ahalik azkarren amaitzea egin beharrekoa".

Batzerrak pixka bat ezagutzeko aukera ere eman dio lan mota horrek, baina ardura ere handia da. Hainbat langile izaten zituen bere esanetara, berak agindutakoa berak agindu bezala egiteko. "Gure lana hobetzen saiatzen ginen beti, eta instalazioak ondo egiten, gero arazorik ez emateko".

Bidaia gutxiago egin ditu Arzallusek, baina AEBetara eta Japoniara iritsitakoa da. "Bestela ez nituzkeen toki horiek ezagutuko, eta lanak horretarako aukera eman izan dit". Azpeitiko Biele enpresan 1983an hasi zen,



Felix Arzallus, atzean ezkerrean, 1996an Japoniara egindako lan bidaian.

eta han jarraitu du erretiroa hartu arte. "Enpresa asko hazi da garai hartatik, besteak beste kanpora saltzen hasi ginelako. Denborak erakutsi du erabaki zuzena izan zela enpresa handitu ahal izateko". Bera ere ibili da kanpora bueltaka, baina ez asko, urtean hilabete eta erdi edo bi, gehienez. Hasieran Espainian eta Herrialde Katalanetan saltzen zituzten makinak, baina gerora, urrunagora hasi ziren saltzen, Erresuma Batua, Alemaniara, Mexikora... baita lehen aipatutako bi herrial-

deetara ere, AEBetara eta Japoniara. Arzallus azken bi horietan izana da, eta bietatik dauka oroitzen polita: "AEBetan, Charlestonen izan ginen, Hego Carolinan, eta aukera izan genuen Bigarren Mundu Gerrako urpekari bat ikusteko. Japonian, berriz, Fidel Rodriguez zena eta biok ibili ginen muntaketa lanetan. Hark ezagutzen zuen han bizi zen azpeitiar bat, eta bi igandetan elkarrekin ibili ginen Tokio eza- gutzen. Oso esperietzria polita izan zen". ■

GLUAL
HYDRAULICS

Avenida de Landeta, 11 · 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)



HAWSE
HYDRAULIK

Parker

atos

HYDRO LEDUC

Duff Norton

VOSS

TRELLEBORG

MEPAC

Tel.: +34 943 15 70 15 · comercial@glual.com · export@glual.com

www.glual.com



"ZUHURTZIAZ ETA BAIKORTASUNEZ BEGIRATZEN DIOGU ETORKIZUNARI"

Eugenio Larrañaga eta Iker Epelde azkoitiarrek 2005. urtean sortu zuten P3 enpresa Azkoitiko Ugarte industrialdeko 82. zenbakian (www.p3proteccion.com). Bost lagunek osatzen dute lantaldea, eta adituak dira lan babesaren munduan, zamen igoeran, bizi-lerro izeneko segurtasun elementuetan eta erorketen aurkako beste sistema batzuetan.

Noiz sortu zenuten enpresa?

2005ean sortu genuen. Hasi ginenean, zera esaten genuen: gogoratzen gara: 'Urte hau oso garrantzitsua da, enpresen %80 lehenengo urtean ixten direla irakurri baitut'. Horrela, urtez urte, bi, hiru, bost edo hamar urte zeramatzaten enpresen bizi-raupenari buruzko estatistikak iristen zitzaizkigun eskuetara. Oraindik orain, datuak horiek izan gabe, 2005a bezain garrantzitsua da urte bakoitza.

Zein da zuen jarduera?

Lan babesaren munduan, zama igoeran, bizi-lerroetan eta erorketen aurkako beste sistema batzuetan zentratuta gaude. Laneko babesari dagokionez, lanerako jantziak eta lan babese-

rako elementuak (Norbera Babesteko Ekipamenduak edo EPlak) merkaturatzen ditugu; karga elebazioari dagokionez, berriz, hainbat produktu eskaintzen ditugu: kate eslingak, kable eslingak, poliester eslingak, kakoak, polipastoak, balantzinak, imanak... Zama igoerarekin zerikusia duen ia guztiarekin lan egiten dugu, eta bezeroak eskatuta, diseinu bereziak ere garatzen ditugu.

Horrez gain, aipatzekoa da industria plantetan eta tailerretan berrikusketak egiten ditugula. Bertan, elementu horiek ikuskatzen ditugu, eta txosten xehatua egiten dugu.

Bi eremuetan espezialista izateak eragiten duen faktore bereizgarria eskaintzen saiatzen gara.

Zer da, zehazki, bizi-lerro bat?

Bizi-lerroa ziurtagiridun segurtasun elementua da. Batez ere, teilatuetan, sabaietan eta fatxadetan instalatzen da, eta erabiltzailea altueran edo erortzeko arriskua dagoen lekuetan dagoenean, seguru ibiltzeko aukera ematen dio.

Bizi-lerroak makinetan ere jar daitezke. Industriaren arloan tamaina handiko makinak egiten dituzten bezeroekin lan egiten dugu, eta makina horietan gure bizi-lerroak eta sarbideak, adibidez, eskailerak, instalatzen dituzte. Erorketen aurkako bestelako babes sistemak ere baditugu, hala nola, barandak. Horiek guztiak indarrean dauden araudien arabera dira.

Nori zuzenduta dago zuen jarduerak?

Funtsean, industrian zentratuta gaude, baina gure bezeroen artean eraikuntza-aren sektoreko enpresak ere baditugu.

Bizi-lerroei eta erorketen aurkako sistemei dagokienez, arkitektura enpresak eta lursailen administratzaileak ere gure jardun eremuan daude.

Zein lurralde eremutan egiten duzue lan?

Produktu motaren arabera, eskualde mailan zein Euskadin eta Nafarroan jarduten dugu.

Norbera Babesteko Ekipamendu edo EPIetan espezialistak izanda, nola bizi izan duzue maskaren falta pandemian zehar?

Konfinamendu garaian, gure zerbitzua funtsezkoa zenez, jarduerari eutsi genion. Zoramenen izan zen hura, ehunka dei jasotzen genituelako, eman ezin genuena eskatuz: maskarak eta gel hidroalkoholikoa. Fabrikatzaile eta inportatzaile nazional guztiek konfiskatuta zeuzkaten salgai horiek Osasun Sailera bideratzeko, eta Europako gobernuek debekatu egin zieten fabrikatzaileei beren mugetatik ateratzea. Jarduera handia genuen, baina ia ezer ez eskaintzeko. Hilabete batzuetan, maskarak eta gel hidroalkoholikoa izan ziren gure egiteko nagusia. 2020ko apirilean, bakterioak %99tik gora iragazten zituzten eta 300 aldiz baino gehiagoz garbitu zitezkeen maskara berrerabilgarriak lortu genituen.

Garai hartan, zentimo batzuk balio duen erabilera bakarrek maskara higienikoa, esaterako, urrezko prezioan ordaintzen zen; lau edo bost eurotan bakoitza, eta FFP2 maskara, berriz, bederatzi edo hamar eurotan. Guk inoiz ez genuen espekulatu nahi izan, hasiera-hasieratik argi izan genuen laguntzeko eta gure aletxoak jartzeko unea zela. Inguruko tailerretan eta adinekoen egoitzetan 5.000 maskara berrerabilgarri baino gehiago eman genituen doan.



Esker oneko dei eta mezu asko jaso genituen, eta benetan harro sentitu ginen horretaz.

Nola ikusten duzue etorkizuna, eta zer erronka dituzue?

P3n bost pertsonak egiten dugu lan, eta horietatik hiruk 26 urte dituzte batez beste. Beraz, talde gaztea dugu, eta horri hamasei urteko esperientzia gehitzen badiogu, talde trebea eta ondo antolatua sortzeko, zuhurtziarekin nahiz ilusioarekin eta baikortasunarekin begiratzen diogu etorkizunari.

Digitalizazioa ere hor dago; ez da gai berria, baina jauzi bat eman nahi dugu. Horretarako, bi fasetan osatutako proiektu bati ekin diogu. 2021eko azken lauhilekoan eta 2022ko zati batean, SAP software sistema instalatuko dugu. Zirurrenik, merkatuan dauden bi ERP software onenetako bat da. Etengabeko bilakaeran gaude, eta espe-ro dugu merkataritza harremanak optimizatzea ahalbidetzen duten digitalizazio aurrerapenetan eguneratuta egotea.

Horrez gain, egoera ekonomikoaren menpe ere bagaude, eta balio handia ematen diogu gure inguruan bertako enpresak egon izanari, hementxo enpresariak buru dituztenei eta gauzak hemen egiteaz arduratzen direnei; horietako batzuk, gainera, munduko beste herrialde batzuetara esportatzen dute. Munduan beren lekua dute, eta hori ikaragarria da. Enpresa horiek dira gurea bezalako beste enpresa txikiak bultzatzen dituztenak. Zentzu horretan, errespetuan eta profesionaltasunean oinarrituta, lehen lerroko kolaboratzaile izan nahi dugu, eskatzen dituzten eta eskaintzen ditugun produktuak eta zerbitzuak emateko, enpresa serioa, eraginkorra eta ondo antolatua sortuz. ■

BieleGroup



BieleBUILDING
SOLUCIONES



BieleMETAL
SOLUCIONES



BieleWOOD
SOLUCIONES



BieleAUTOMOTIVE
SOLUCIONES

Bulego nagusia

Larrañaga Industrialdea, 1 · 20738 Urrestilla, AZPEITIA Gipuzkoa (España)

Tel.: +34 943 15 70 50

biele@biele.com

www.biele.com